

# Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## Mariano Izeta Elizalde

“Literaturarako behiñik behin konbeni litzake batzea”

Nork ez du Mariano ezagutzen? Nafarroa zaharretan idazle jatorra dugu. Elizondoko txokotik hedatzen ditu euskal aldizkarietan barna berri jakingarriak. Denborari ez ezik —erlejeria bait da— beste gauza askori ere ederki hartzen dio pultsoa: euskaltzaleasunari, herriaren bizierari, gizarteko arazoari, euskeraren batasunari... Atsegin zaigu bere hizkera jatorrean bere iritzia jakitea.

—Zoritxarrez ez da euskal idazle askorik Nafarroan. Zergatik uste duzu?

—Galdera hori bera egiten diot aunitz aldiz nere buruari. Badira bada horteko dine eta aski onak halare. “Principe de Viana” eta “Elkartasuna” aldizkarietan idazten duten guztiak denak nafarretan dira eta ez dira guti Gehiago izan daitezkeela? bai egia, ez da ez gaia ez delakotz aunitz eta aunitz bait dira idatzi dezaketanak. Zaletasuna eta lanerako gogoia behar.

—Zer egin beharko litzake idazle gazte gehiago sor ditzeten?

—Nik uste idatz-sariketak garrantzi handikoak izango liratekeela. Orain egin beharreda hemen Nafarroan, Iruñeko Aurrezki Kutxak antolatutako, Idatz Sariketa handi bat. Lehiaketa hontan nafarretan bakarrik sar daitezke. Gai librean izanen dute eta lanaren neurria 100 folio. Sari ederra irabaztearentzat, 100.000 peza. Segur naiz lehiaketa hontan lan ederrak agertuko direla. Bertze idatz-sariketa bat ere badugu hemen eta hau ere haurrentzat. Lehiaketa hau “Axular Saria” deitzen da eta Iruñeko “Diario de Navarra”k antolatzen du, aurtengoarekin zazpi-garrena. Sariketa hontan sar daitezke eskoletako haurrak eta 15 urtetarañoak. Bertze urtetan bezala aurten ere nafarretan hurrek lan politak igorriko dituzte naski, idazki tipik hauek euskara arrotean eta haurrak berak mintzatzen diren gisera agertzen bait-dituzte ipuiak, eta aunitz aldiz hoiak izaten dira kontu politenak eta grazia gehiena dutenak. “Axular Saria” deritzen idatz lehiaketa honek arrakasta handia izaten du. “Diario de Navarra”k hamabostean behin agertzen ditu holako bi kontu. Bertze Sariketa batzuk ere eginak ditugu azkenengo urte hauetan Lesakan eta Baztanen. Lehiaketa hoiak ere haurrentzat izaten dira eta ez ginuke utzi behar, gisa hontan iendearen artean zaletasun pixka bat pizten ahal da eta zerbait on erdietsi ere.

Haurrentzat egiten duguna haundietako ere egin daiteke, ez lan luzeak baizik laburrak eta mamitsuak eta erraxtasunak emateko aski litzake hiru edo lau folioko lana. Gisa hortan idazle gazteak saiatuko lirateke eta gure euskal-alorrean egiten den lanak zitu one eman dezake. Beti ere gure baraztean iorraldi on baten premia badago lapatinak eta barrabas belarrak landarea ito ez dezaten.

—Askok galdu al da euskera Nafarroan azken urte hauetan?

—Bai galdu da eta ez dugu gurririk erran behar, hemen Nafarroan eta bai Euskal-Herri osoan ere, hori da gure Herriak daukan min-bizia, eta non dugu sendagaia? Non ta ez dugun erdal izpiritu hori gurgandik uxatzen eta horren ordez euskal iz-

piritu denen bihotzetan sarrarazten, ez dugu gure mintzaira indartuko. Orain ez da lehenago bezala, aintzineko, denboretan iendea euskaraz mintzatzen zen erdaraz etzakielakotz, baina oraiko denboretan ez da hori gertatzen, orain denek badakite erdaraz, gazteria ongi eskolatue dago eta gehienak arras erdaldunduak eta eskuararengatik batera inportik ez, holaxe ikusten ditugu euskaldun gurasoen umiak eskuaraz deusere ez dakitenak. Hori hemen gure eskualdean eta Nafarroan barna ere eta bai Euskal-Herri osoan gertatzen dena da. Eta hori zergatik da? Zaletasunik ez delakotz eta gure mintzaira merexi duen bezala maite ez dugulakotz. Alde batetik galdu dugu egia da eta bertetik zerbait irabazi. Gure Ikastolak egiten duten lana onuragarria da eta nabari da, haurrek ikasten dute eta hoietan dugu itxaropena, hoietan ditugu iarraikitzaileak eta hortxe dago geroa. Lana egiten da baina deus ez dugu erdietsiko euskal izpiriturik ez bada, izpiritu hori euskaldun guzietan munitarano sartua balego, orduan bertzerik litzake.

—Zuk “Herria”n, “Principe de Viana”n eta “Zeruko Argia”n idazten duzu batipat. Zergatik idatzi ohi duzu?

—Nik idazten dut hortarako zaletasuna badudalako eta euskal aldizkari hoiak maite ditudalako. “Zeruko Argia”n hasi nintzen 1957ko urtean, denbora hartan liburuxka tipik bat besterik etzelerik. “Herria”n 1960ko urtean, Baionako astekari hau mugaz-bestealdeko eskualdunen artean aunitz hedatua dago eta Ameriketako eskualdunek ere aunitz irakurtzen dute. “Principe de Viana” Nafarroako Diputazioko aldizkarian hilabetero idazten dut, nafarretan naizen ezker ahal dudan guzia egiten dut gure errebita hori indartu dadin hemengo euskaldun familietan sar dadin. Baita ere idatzi izan dut “Aranzazu”n “Elkartasuna”n, “Diario de Navarra”n eta “Anaitasuna”n ere. Nere laguntza tipik baldin bada ere nere ahalmenaren neurrian saiatuko naiz denak aintzainat joan daitezken.

—Baduzu “Dirua Galgarri” izeneko nobela bat. Zergatik ez duzu bertzerik argitaratu?

—Bai, badut “Dirua Galgarri” izeneko nobelatxo bat “Auspoa” liburutegiak argitaratua 1962garren urtean. Zergatik ez dudan bertzerik argitaratu? Garbi erranen dut. Hortarako asti gutxi dudalako, nekagarria bait da holako kontu bat pentsatzea eta idaztea, baina ez nago etsitua, noizbaitere zer edo zer eginen dut nahiz eta nere lan hoiak ez duten aunitz balio. Baditut bertze lau ipui txiki idatziak, oso tipiak lau-bost folio dituztenak. Hoiakotz bat “Hegatsez” izeneko liburuan argitaratua dago.

—Nondik ateratzen duzu idazteko beta? Esku lanen bat edo egin beharko duzu bada ogia irabazteko?

—Idazteko beta? Afalondoen pixka bat eta bazkalondoen ere bai baina oso gutti, aioxion errana dut asti gutti dudala eta gehiago ezin nezakeela egin. Nik badut nere lantegia eta hortan aritzen naiz egun guzian, nik ez ditut oporketik eta ez ingles larunbatik. Igandeak bakarrik ditut



atseden eta orduan irakurri eta idazten ahal dut zerbait.

—Elizondokoa zerenez gero erraz ulertzen al diezu Gipuzkoarrei eta mugaz bestealdeko euskalduneri?

—Ni Elizondon sortua naiz, hemen azia eta hemen naiz bizi. Nere ama zena ere hemengo, Elizondokoa, eta amaren gurasoak ere hemengoak, aintzinekoak ere denak baztandarrek. Nere aita zena gipuzkoarra Zarautz-ko semea eta bere gurasoak eta aintzinekoak ere dena gipuzkoarrak. Nola ez dut ba errex ulertuko nere aita zenaren hizkera? nere ere bait-da? Eta amarena ere nolaz ez? Holaxe bi euskalkiak ditut nereak eta nere bihotzean sartuak. Eta mugaz bestealdeko eskualdinei ere berdin, hauek ere baztandarren gisera mintzattzen bait dira batez ere lapurditar eta baxenabartarrak. Eta zer erran beste gainerako euskalkietatik ere nahiz bizkaitar, arabar nola zuberotar izan dena euskara bait da. Aunitz aldiz gertatzen zaigu euskaldunen

## NON ZER

- «ORIXE, GIZON HAUNDIA!»  
Aranalde ... .. 3 garrean
- IKASLEA DELA TA  
Aurtiz ... .. 3 garrean
- TEORIA  
Ansola ... .. 5 garrean
- Aranzadi Elkarte ... .. 6 garrean
- LITERATURA  
Lertxundi ... .. 7 garrean
- AKITANIA ETA EUSKALERRIA  
Larrea ... .. 10 garrean

tsasua, Tafalla eta Olazti. Haurrek ikasten dute eta iendea kontent dago. Euskal-Jaialdiak ere egiten dira, aurten ere leku askotan izan ditugu, jaiak bertsolarietara eta abar. Jaialdi hauek sekulako arrakasta izaten dute.

—Laster duzue hemen Elizondon azoka sonatu bat. Zer jende biltzen da eta zer eratako azoka egiten da?

—Urriko feriak deitzen direnak dira hemen urtean egiten den azokarik haundiena. Aurten 27an ditugu feria hoiak. Lehenago hiru egun izaten ziren, osteguna, ostirala eta larunbata, baina aspaldiko urte hauetan egun bat bakarra izaten da eta hori ostiralarekin. Egun hortan iende aunitz biltzen da Elizondon, hemen ikusten ditugularik Baztan, Bidasoa, Ultzama eta mugaz-bestealdeko euskaldunak denak ferietara etortzen bait dira egun goxo bat iragaitako nahikeriarekin. Merkatu plaza azia aunitz eta klase onkoa. Baztandar eta Iruñe aldeko tratulariek behi asko ekartzen dituzte eta bai salmenta onak egin ere. Gauzak aunitz aldatu dira, bai ferietan nola bertze gaztetan ere; lehenago klase guzietako gauzak saltzen ziren ferietan, arropa oiñutakoak eta nekezariak behar zituzten tresna klase guzietatik, hiru egunetan ibiltzen zen iendea ez aunitz gainera, lehenago iendea ez baitzen etxetik ateratzen eta neguan guttiago, neguari buruz beren etxetan behar zirenak urriko ferietan erosten zituzten eta gisa hortan ornitu ere etxeko zokoak. Hala ere ferietan izen horrek irauten bait du iendea pozik etortzen da Baztango hiri nagusira. Urtero edo gehienetan ikusgarri edo dibersioren bat izaten da eta aurten Antxitoneko trinketean bertsolari besta bat egin beharra da.

—Zer diozu euskerari buruzko oraingo joeraz? Bidezkoa iruditzen zaizu batzea?

—Literaturarako behiñik behin konbeni litzake batzea. Hori literaturan ofizialki bat izan dezagun, baina bakotxa bere herrietan eta familietan mintza dadiela lekuko euskara bakotzak berea, gero irakurgaietan izango da batua. Eta nola moldatu hori? Gizon jakintsuak baditugu Euskal-Herrian hortan ari direnak eta gauzak bide onetik ioanen dira. Oraiko idazle gehienak nere iduriko euskara berdintsua darabillkite, batez ere gazteek eta zenbaitzuek ederki idazten dutelarik. Idazle guzietan egin behar ginukena da beste gainerako euskalkiak ere ongi ikasi eta solas hoiak ere geran idazkietan sartu, hemengo eta hango hitzak eta solas jatorrekin eta hoberekin aukeratuaz. Euskalki guzietan badira gauza onak eta beste batzuk behar ez ain onak, baina hoberekin eta egokien aukeratuaz lan ederra egin daiteke.

Orain gauza guztiak zuzentasun osoan gerta daitezila.

Zurekin mintzatzeko poza eta egokiera izan ditugu, Mariano. Ea berriro Elizondoko ferian elkar ikusten dugun. Jarrai honelaxe lanean. Eutsi Nafarroaren euskaltasun eta herritasunari.



## BERTSO BERRIAK NERE BORDATXOTIK

## "BERTSOLARIAK"

Euskalerriko semeak dira... gauza guztien gaiñetik Erria maitatzen dutenak... beren barruan dabilkiten euskera erabili, eta zabaltzen ari diranak. Obe genduke euskaldun guztiok, zeuren bidetik jarrai, eta emango bagenioke erriari, zuek ematen ari zeraten erantzuna.

## I

Amar bat bertso jarriko ditut gaia polit bat artuta, jaunak; aspaldi ontan nebillen gaia ontaz beartuta; bertsolariak maiteak ditut nik ez daduzkat aztuta, menperatuta gelditzen naiz ni zuekin konparatuta.

## II

Euskalerria maitatzen dute gauza guztien gaiñetik, beren bertsoan arkitzen degu gauza ori aspalditik; geienak dira sortutakoak mendi edo baserritik, gure euskera zabaldutzeko merezi duan partetik.

## III

Zuek beti pronto, lagun maiteok, joateko edozein tokira jaiak dirala ta zuen lanak alderditik alderdira. Zuen begiak daduzkatzute erri jendeari begira, Euskalerria bertsolariak jasoko ote du argira?

## IV

Noiztik ote da bertsolarien oitura zarra etorri? oraindik beintzat egoera au ez du inortxok igarri; bainan guztiok jarrai zazute; eman erriaren berri, eta lenago jua zitzaizkigun oitura zarrak ekarri

## V

Obe genduke zuen antzera danok ibilli bagia, euskera barranean dezute eta euskaldunen grina. Nola Erria aspaldi ontan daguan oso samia, indartutzeko egin dezute zuek beintzat alegia.

## VI

Esan bezela Erria ez dago nai genduken alaitua, ume txiki bat bezala arkitzen zaigu orain beartsua; guztiok otzak gelditu gera; nun dadukagu zentsua? bertsolariak jarri digute ongi datorkigun sua.

## VII

Etzazutela bein ere pentsa bakarrikan zaudetela, euskera barranean degunak mordoxka ederbat bagera; zeuren bidetik jarrai zazute danontzat obe orrela, eta merezi duan mallian utziko degu euskera.

## VIII

Goiko Jaunak eman zizuten doia edo saria, errexia izanda neretzako bai jaunak ori esatia. Amaika saio egin dezute, amaika bertso botia, lastima ez dula jende geiagok bertsolarien dotia.

## IX

Bertso lanian kaxkara naiz ni, barkatuko didazute, bainan eskeintzen dizkitzuten oik neri uka etzaidazute. Badakit ziur, bertsolariak, geio merezi dezute, gaztiak jarritako bertsoak gustora artu itzazute.

## X

Bukatutzeko asmoakin naiz barkatu gaizki esana, eta orain esango dizuet gogora etorri zaidana; Manuel Olaizola Uztapide bertsolaria zerana, beste eunbat urteko bizia da nik opa dizudana.

J. J. URRIA  
(Hernani)

Udaberri eskas, txatxu, petrala izan genduen.

Iritxi zan udara, ta lengusu txiki ote zan esan bear. Marmar bizian kanpotarrak, ondartzarako edo urerako girorik etzutela-ta. Dagonilla (abuztua) batipat, ortik onerakoa.

Kanpoa oso atzera. Gipuzkoa'ko gerezi bakar bat jateko erarik ez genduen izan. Beste frutu batzutatik ere urri izango geran itxurak.

Baia... itz neurtuz adieraztea ez ote egokiago?

Uda joan zaula-ta zertan izan pena? bera izaten baita sarri kaxkarrena. Aspaldiko urtetan uka ez leikena, askoz obea dala emen undazkena.

Ego-aize goxoak ezitzen gaitu gu, "Ongi Etorri" pozik esaten diogu. Kanpoa ilibatez atzera daukagu, gozatzeko zerbaiten premia ba-degu.

Negurako eztago geiegizko pozik, beteta bear luken asko dago utsik; eztegu ez sagarrak, ezta ere matsik, eztauka onek urte bapoaren antzik.

Beregitamar duro: ori da kolpea! lakari babarruna eztago merkea. Pentsatzen jarri eta au bada urtea, ezta errez izango nai ainbat jatea.

1972'garren urteko urrilla'ren zorzigarren eguna.

Urgull mendiaren magalean dagoen Santa Teresa etxerako deia izan genduen. Donosti zoragarriak dituen ainbat leku edderretatik, nor oni aurea artzekorik?

Zuzendaritzaren naia ala zalarik, an bildu giñan Zeruko Argia'n idazten degunok.

Irakurle danak ondo dakitenez, bide desberdinetik gabiltzan idazleak gera, ortografiari ta zerbait gramatika zatiri buruz.


Biziro pozik etxeratu giñala aitortu bear.

Bakanak giñan an alkar ezagutzen gendueak. Guretzat beintzat, aurpegi ez-ezagun asko azaldu zan. Pozgarria benetan an ikusi ta somatu zan alkarganako itzala ta errespetoa.


"Jendetasuna", Aingeru Irigarai jaunak esango lukenez.

Batzuk H-zale purrukatuak; besteok, begien bixtan ikusi nai eztegunak.

Benetako demokrazia, bakoitzaren jabetasuna aintzat artzea da, an egin zan bezela.



Pozgarria, an ikusi ta somatu zan alkarganako itzala



Milla bider esanak gera, ta bijoa bein da herriro; jorra dezala bakoitzak bere baratza al duen modurik onenean, naste-borraste onek irauten duen artean.

Denborarekin urak etorriko dira beren bidera. Orduan konturatuko gera uskeri batzuren truke zenbat xixtrinkeri izan dan gure artean. Geroak argituko du orain ain ilun ikusten degun zerualdea.

Libreki, askatasun osoz, azaldu ziran iritziak, eta bai asmo ederririk agertu ere.

Ziur gaude egun artako billerak bere frutua emango duela.

ZERUKO ARGIA, luzaro baiño len (bere denbora bearko du, noski), beste tankera batean azalduko da. Gaur ezituen sail batzuk izango ditu berekin.

Baserritar, arrantzale, langille, errietako berriemate ta abar, danak izango ditu gogoan. Bakoitzari bere bazka eskeiñiko dio.

Alkarganako begirapenik galtzen eztegun artean; lau umekeriren truke odolak irakinda jartzen ez geran artean, itxaropen aundiak izan gemitzake.

Askoz obea izango litzake (nola ez), danok bide batetik joko bagendu, ta arau berdinietara errendituko bagia.

Au ezinezkoa da gaurkoz. Pikoak ere giroa bear izaten dute ondo elduko badira.

Gure izkuntzari etorriko zaiola uste degu premizko zaiion giroa.

Orretzek galdu gaitu oraindaiño-koan: girorik ezak.

Urte mordo aundia galdu degu derrigorrean. Egoak moztu zizkiguten eta ezer egiterik ez.

Alakorik gertatu ezpalitz, gaur etzan ain negargarria izango gure izkuntzaren egoera.

Askotxo zegoen lendik egiña, ta askoz geiago egingo zan. Geuk uste baiño urrutiago giñan onezker, danok gogoan degun gertakari garratz ura tarteko izan ezpalitz.

Ta... gaur gauden baiño (ezta zailla-ta), milla bider alkartuago.

Ekaitz beldurgarri ark txikitu ta desegin zuen ia eskuetan genduen uzta (kosetxa).

Ekaitzaren aurretik lanean ari giñanok itzezin genezake ontaz, geienetan batekoz bestera gertatzen bada ere. Gaur ain errez itzeziten eta idazten duten batzuk, ur aietatik paseak izan balira, agian, beste modu batez pentsatuko lukete, edo itzak obeto neurtuko litzukete.

*Baserritar*



## Bizkortasuna

Serbitzu egoki baten izena.  
Gure jardun guztietan beti elburu bera:  
Arazo bakoitzarentzat erantzunik onena.  
Egunero gure lantokietan eztertzen, zuzentzen eta konpontzen ditugun eginbeharrerako bizkortasuna  
Eta gure serbitzu balioekin batea errerarik atsegina  
Etor zerori eta ikus

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL  
DE GUIPUZCOA  
SERBITZU BIZKOR ETA ATSEGINA



YOGUR  
GURELESA  
GOGOZKOENA





# BAHITEGIAK

Gizarte osoak arduratu behar du giza-bahitegi edo esperteaz. Gizartearen erakundeetako bat degu. Gizarteak bere iraunpenerako sortu duen zerbitu. Eta ez dirudi oraingoz ken dezakeenik ere. Oraingoz, behintzat, beharrezko zerbitu duela dirudi. Esperteak urritzeko ordez ugalduz joango direla dirudi, gaitiera.

Jendea ugaltzek okerrak ere ugaltzea dakar. Okerra egin dezaketena, edonork egin bait dezake uts, gehitu egin direlako. Jendea ugaltzeki dagokion bizi-moldeak ez jartzeak, barru-izaeraz gaixo dan jende asko sortzen du. Etsipenezko eta larritasunezko egoerak gehitzen ditu. Desberdintasunezko eta bidagabekeriako moldeak indartzen ditu. Legea ez da askotan, zoritxarrez, giza-askatasunaren zaitzaille.

Guzti horrek ugaldu egiten ditu legearen aurkako pekatuak. Baiñapekatuaren errua askotan ez dago "gaizkillearen" bihotz markurrean, gizonaren gaixotasunean, bizieran, egoeran, erakundearen baiziki.

Dena den, esperteak eta espertxeratuak gehitu egin dira. Ikustekoa litzake zenbat diran mundu zabalean. Baiña inoiz ere ahaztu ez ditekeen egia hauxe da: gizon dela espertxerata ere. Gizon denez, gizon bezala erabili behar dugula. Ortarako lehenik gizarteak berak, gizona espertxera bidean jarazten duten bideak itxi behar ditu. Sendagileak, jendea gaixotzeko moztu behar dituen antzera. Obe da gaitzetik ateratzea baiña, gaitzean erortzen ez uztea.

Baiña erortzen direnak sendatzen ahalagindu behar da, noski. Bete izango dira, zoritxarrez, gizartearentzat arrisku diren gizonak. Eta beti behar dute bahitegiak. Bada bai espertxerik gabeko zeru bat amesten duen jendea. Noiz eta nola gertatuko?

Zertarako eta nolakoak behar dute izan bienbitartean espertxe edo bahitegiak? Zigor-leku uts? Garbitoki uts? Ordain-bide soil? Ez da itzali oraindik gizonaren barruan abere-griña. Pozik ikusten ditu oraindik mutur-jokak. Aundia da gure barruko mendekue-irrika, "odolkiak ordainfetan" bohurtzeko joera. "Gaizki egin du ordain dezala".

Zigor-leku izan behar al dute esperteak ala gordeleku, babesleku, bahitegi? Gordeleku ala sendaleku? Sendaturik, herriro gizartearen txertatzeko bide?

"Bahitua, sendaturik herriro gizartearen txertatzeko bide izan behar duela esperteak", esan ohi da. Baiña zigorlekutzat bakarrik ardu ditu jendeak. Bahitua ez zuen ezereen eskubiderik. Ez zen gutxi, bizirik uztea. Emezortzigarren gizaridira arte ez zitzaion espertxerik ere opa gaizkilleari. Edo ilerazi egiten zen edo gorputzeko atalen bat moztzen zitzaion edo meatze-lanetara bidali ohi zen edo zorrik ordain arazten zitzaizkion. Ez zen, zigor-mota bezala, espertxerik eza-guzten.

Zer gehiago eska dezake, beraz, gaizkilleak? Ez behar bezalako janik, ez eguzkiaren argirik, ez txunkuntasunik, ez berogarririk, ez tratu onik zor zaio espertxeratuari askoren iritzian. Ez du merezi gizartearen oroitzapenik. Ahaztu egin zaio gizarteari, espertxerata ere gizon dela. Ahalik eta lehenen gizartearen bizitzeko eskubidea duen gizona dela.

Izan ohi ditu artzaiak ere artaldean ardi gaiztoak, ardi txoroak arkume gaitzetsiak. Bete auzoakoaren sailtera ihes egiten duten ardiak. Inoiz ere ezin zaindu ditunak. Okerra besterik egiten ez dutenak. Artalde osoa aztoratu besterik egiten ez dutenak. Honelakoak bordin utzi ohi ditu, txabolari bahiturik edo larrean sokatik lotuta. Baiña horregatik ez ditu jotzen. Ez ditu bapanaka jartzen marruka leher ditzeten. Nahiko jana jartzen die ganbelan. Azpi ona uzten die etzan ditzeten. Ez ditu otsoak edo pizti tzarren batek garbitzeko eran uzten. Ondo zaintzen ditu.

Baiña gizona ardia baiña askoz gehiago da. Espertxeratuak, gizon denez, janari-edariak, logela, txunkundadea, jolasa, lana liburuak, egunerokoak, argia, aizea, lagunartea, sendagaitzak, etxekoekiko arremanak... behar ditu. Ondo egon ez ezik, handik ateratzeko sendatzaile ere egin behar du. Horregatik aparteko eskua eta bihotza behar dute zaitzaille guztiak, eguneroko eta ordneroko beroekin dabilzanek, sendagileak, legegizonak, apaizek, denek. Benetako gogoia eta era hortako jendearentzat gauzatua behar du lan bikain hortan jardun behar duenak, espertxerata erabateko gizon egiñik atera dedin etxera, gizartera, lantokira.

# IKASLEA DELA TA

Kurso berria dela ta, beharrezkoa ikusi dut aipatzea ikaslearen egoera eta joera etorkizunari begira. Lan zaila bada ere ausartu naiz, uste baitut inon nahaste-borrasterik baldin bada, ikaslearen tean dela. Horrez gainera, ene aburuz, ikasleari buruz irudi zeharo faltso bat egin dugu eta irudi hori kritikatzeko garaia heldu da.

Zenbait kasutan ikaslea (eta unibersitarioa batik bat) gazte "radikalizatuaren" eredutzat jarri ohi izan digute. "Intelektual", "zentzudun", "zuzentasunaren egarritz beteta dagoena", "diruaren hotsak eragin gabekoa" eta era honetako zenbait pitokeria. Are gehiago, azken bolara honetan (eta batez ere ikasle mailan) badirudi ikaslea dela, benetako iraultzairen defenditzaile porrokatua, erreformismoen gurtzian etsaia, kontzientziatuena (herria berak kontzientziatzen baitu), mito guztiak gainditu dituen eta abar.

Alegia, horregatik eta propagandak dela medio, ikaslea mito bat bihurtu da, ikaslea (eta hobeki unibersitarioa) mito berri bat da.

Ni, ikasle naizenez gero, giro honetan bizi naiz eta honetaz pentsatzeko astia izan dut. Jende asko nerekin bat ez dela etorriko jakin arren, neure eritzia ematera nozikizue.

Ikaslearen hauzi hau ondo eza-gutzeko eta adierazteko, hauzi hau sortu duen errealitatea ezagutu behar da. Derrigorrezkoa dela uste dut. Afera hau, beste guztiak bezala ez baitago mundutik kanpo.

Ikasle mugimendua, denok dakizutenaz, guti gora-behera II garren gerra ondoren sortu zen. Ameriketara sortzen bada ere (Berkeley), arrakasta handiena Europar lortzen duela esan daiteke, ardatza bezala Berlin eta Paris izanik.

Hasiera batean mugimendu hauek, bakarrik pedagogiarren xistimik kritikatzeko badituzte ere pedagogia beste gauza batzuri lotuta dagoela ulertuz, xistima politiko osoa kritikatzeko dute. Iraultzaile bezala agertzen dira, alegia. Ezkerreko alderdi guztiak "reformista" tzat kritikatu eta III garren munduko taktikak onhartuz, ekiten diote bururari. Maiatzeko erreboltan gailurra ikutz, gaur, hemen ez ezik, suntsibidean dauntzate.

Lehen esan dudanez, mugimendua hau kritikatzeko errealitatea ezagutu behar da. Hel dizaiogun, bada, Europako errealitateari.

Ezin daiteke hitz bitan Europako errealitatearen irudi sakon bat eman. Halaz guztiz, bere adierazpen onena desarroiloa dela esango nuke.

Desarroilo edo aurrerapen horren euskarri eta bultzatzaile tinkoena Merkatu Batua da, Are gehiago, Merkatu Batua, Europako errealitate inportanteena da, eta

hemen datza, hain zuzen, ikasle mugimendua eta Frantziar "gauchismo" deritzan mugimenduen sus-traia.

Dakizutenaz, sozialismo "ofizializatu", Merkatu Batua, laster datorren krisi osoaren adierazpena besterik ez zen. Eritzi hau, sozialismo "ofizialak" epe luze batean izan duen planteamentu ofiziala izan da. Moskuko Ekonomi-Institutuak 1957an emandako "Hamazazpi Tesi" ak honen lekuko onenak dira.

Jakina eta normala denez, garai hartako alderdi iraultzaileak eritzi hortakoak ziren. Alegia, Merkatu Batua gauza transitorio bat zenez gero ez zitzaion garrantzirik eman behar, kapitalismoaren amaiera laster baitzatorren.

Bainan poliki, poliki, Merkatu Batua finkatuz joan zen eta beronen ondorioak sentiaraziz: Nekazaritzarekiko politika komun bat Ingalaterra sartzeko desiatzen, Merkatu Batuan sarturik zeuden herrien desarroilo ritmo izugarria... eta abar.

Arrazoi hauek eraginik, U.R.S.S. en kutsu realista bat sentierazten da. Jedanik 1962an nabaitzen dira lehenengo aldakuntzak eta hoiaren artean Merkatu Batuarekiko eritzi berriak. Esate baterako Pravdan Maiatzeko 23an Arzumanjan ekonomistak hala zion: "Merkatu Batua errealitate politiko eta ekonomiko bat da zalantzarik gabe".

Eritzi berbera agertzen da Ekonomi-Institutuak egindako "Hogeihamairu Tesi" etan. Urte hontan ere Khroutchevrek hala zion COMECON eta CCEEen arteko harremanak aipatzerakoan: "A cet égard se pose la question de la possibilité d'une collaboration économique non seulement entre les États à régimes sociaux différents, mais encore entre leurs unions économiques".

Eritzi hau geroztik finkatuz joan da eta honen lekuko Brejnevek joan den Martxoan Sindikatoen aurrean zion: "Le Marché Commun fait partie de la situation réelle en Europe Occidentale".

Alegia, kapitalismoak nahiko garbi frogatu digu oraindik luzaro jarraitzeko gauza dela eta ez dela bi egunetan suntsituko.

Hau zela ta, zenbait ezkerreko alderdi beren "amets iraultzaileak" baztertzeko, erreformismoaren bidean abiatu zen bere bide bakartzat, hau hartuz.

Hots, ezkerre aldean krisi bat sortzen da. Ikasle mugimendua, krisi horren expresioa besterik ez da. Erreformismoari egindako erantzun bat. Erantzun honek ez du sekulan egoeraren aldakuntza kontuan hartuko. Azken honen frogantza bezala ikusiko dugu nola ikasle mugimendua Hego Amerikako taktikak hartzen dituen, hango eta hemengo egoerak pareatu eta berdinduz.

Alegia, bere joera errealitateetik at finkatuz, egiazki ekartzen duen ondorio bakarra hau da: JOKOA EGIN.

Maurice Duvergere korain dela urte bat esan zuenez: "Gauchismorik izango ez balitz, Gobernuak asmatuko luke".

Mugimendua hau normala zenez, gaur eta bere sustraiaren ondorio bat bezala, suntsibidean datza. Hau frogatzeko Alemaniako eta Frantziako egoera ikusi besterik ez dago. Alemanian S.D.S. taldea desegin zen eta Frantziar Maiatzean lortu zuten batasuna apurtu da gero eta talde gehiagotan zatitua, bere benetako muina agertuz.

Ez pentsa hau dena, nere asmatkizun bat denik, ezta gutiago ere. Alde guzietatik kritikak zabaltu eta ugaldu dira. Ekar ditzagun esenplu batzuk.

Orain dela urte pare bat eta aurrean berriz, Kanadan egindako biltzarretan, Txinako Alderdi Komunistak "gauchiste" mugimendua "kolaborazionista" bezala salatu du.

"El Manifesto" aldizkariak, orain dela urte bat egindako kritika batean hala zion: "Europako eta iraultzairen errealitatea uste genuen baino bide sakonago batzuetatik doa. Azterketaren beharra nabari da".

"El Manifesto" ren eritzi guztiz interesante da, aldizkari honek mugimendua honi buruz izan zuen eritzi kontuan harturik, aldizkari hau Lelio Bassoren jokabideari lotuta baitago.

Hala ta guztiz, badirudi gu ez garela ohartzen. Badirudi bestek saiatu eta gainditu dituzten mitoa guk berritatz hartu nahi ditugula.

Egoeraren aldakuntza honetaz chartu behar dugu eta bizirik dauden joan den mendeko mito guztiak salatu.

Ametsak baztertzeko, nahik eta errealitatearen baldintzak bereziki gero, abia gaitzen joera berri batetik. Gure gauroko egoera berezia kontuan hartu gabe ezin daiteke, ezer egin oraindik okerrago, egin genezakeen lana kaltegarria izango litzake.

Lau idea abstraktorekin ez da ezer egiten, idea hoik konkretatu behar baitira. Gizarte baten baldintzek eta oztzoepek behar dute izan nahi ta nahieko oinarria. "Tremendismo" batzuk, nahiz eta merito handia izan, kaltegarriak dira eta, beraz, salatu beharra dago. Bainan hau kontu zahar bat da. Dena dela, mitotik jaixten ez bagara galduta gaude. "Perspektiba" zikusi behar dugu eta sustraiara joan, bestela, afektibitateak galduko gaitu.

Hau dela eta, euskal ikaslea hemengo egoera bereziaz jabetu behar da eta behin bitaroko gure benetakoak diren arazoak lotu. Ez ahal dago nahiko garbi orain arte ikusitakoak? Gure Fakultadeetan noiz agertu dira gure benetako arazoak? Hau ez ahal da, bada, gure egoera izkutatzea?

Txorakeriak utzi eta lanean hasi behar da. Garaia baita eta guk egiten ez badugu inork ez baitu egingo. Beste artikulu batean esaten nuenaz, hasieran gaude eta oinarriak finkatzen ari gara. Artikulu hau bukatzeko ere ez dut uste lelo txarra denik.

AURTIZ

# «Orixe, gizon haundia»

(TXILLARDEGIRI)

Agur, Txillardegiri: Dagoneko irakurria ez baduzu, irakurrazu lehenik artikulu honek daraman firma. Izen-abizen hoiak nor eta zer naizen esaten ez badizute, jakizu Orixen illoba naizela, haren arrebaren baten alabaren semea. Hau esan beharra nizan, hizketan ari zaizuna nor eta zer den jakin dezazun; ez bainuke nahi artikulu hontan ezer illun geldid dedin, ez hori ez besterik. Ez-eta ez nuke deusik esan nahi metaforaz, ironiaz edo beste nolabait. Hitzak berez dakarren hura bakarrik izango da esana.

Eta orain esan beharrik ba al dago zure artikuluak asko mindu nauela? Ez noski. Lagun batek hala galdedigin dit lehengoan: «Asko asarretu al au Txillardegiren artikuluak?». «Ez —erantzun nion—; asarretu ez, mindu egin naxok». Baiña jakizu ez naizela ni bakarrik mindu naizena. Beste asko ere badira, ta ez bakarrik minduak, baita ere asarretua negoelako Orixek; baiña mindu bai, mindu naiz, zuk esanak izugarriak baitira, ta gaitiera, zuk esanak, euskal-idazle haundi batek, mundu guztiak dakian bezala. Agerian ez dakit inor ausartuko den ezer esaten; baiña izpitik marmar gogorra jarri duzu. Izan ere haundiak

esan dituzu, Txillardegiri, izugarriak! Baiña zaude lasai, ez naiz hasiko zuk esan dituzun hoiak puntuz-puntu erantzuten eta nere aldetik zurea gezurtatzen. Ez. Nik Orixek pakean ikusi nahi dut, pakean aztertu eta pakez eman; eta nik hari ikusten diodana erakutsi arte ta hartzen diodana eman arte, ez dut eztabaidarik nahi. Eta ez pentsa orain bertan beste askok eta askok baiña gehiago esan ez dezaketanik Orixek. Gaur bertan bat baiña gehiagotsagarri utzi nezake hura dela ta ez dela; baiña ez dut nahi. Nik hain haunditza daukadan hura ez nuke presaren gaitzez kutsatu nahi, ez-eta eztabaidaren labean sartu nahi. Nik dezaketan neurrian ongi tratatu nahi nuke, ez nolana, Euskalerririk eman duen idazlerik euskaldunen hura.

Baiña ez beza inork uste nere babesaren beharrik duenik Orixek. Ez da hori. Orixek bada nahiko haundiki bere burua goian auki dezan mendez-mende. Ez du halako edo holako euskaldunen beharrik. Aski du Euskalerrira, aski du bertsoariak sortzen dituen herria, illezkor irau dezan bere lurtean. Nik inoiz hartaz idazten badut, harena eman nahiz egingo dut, haren edertasu-

nak erakutsi nahiz, ez hura babes-teko. Ahal nuen babesa eman nion munduak ostikoka eskuetara ekarri zidanean. Haren premia bai, bazuen; baiña beste honenik ez du.

Baiña jakin beza ere nahi duenak, inoren babesik behar ez duen hark, ez duela inoren bildurrik ere. Badakit norbaiti astakeria irudituko zaiola nik esan dudana; baiña nik ez derizkiot hala. Eta hau zuri esaten dizut, Txillardegiri, bildur naiz oraingo hontan gehiegi zere buruari harrira eman, ez ote diozun, Orixengatik esan dituzunekin. Siniñta idazu, orain horrek ematen didala penarik haundiena. Gehiegi maite zaitugu —eta maite ditut nik zureak— arrixku hori ez ikusteko zure artikulu hori dela-ta. Barkatu, baiña nik horrela ikusten ditut gauzak. Zuk badakizu arrain haundiak tikiia jaten duela. Eta nik zu ez zaduzkat tikiizat, baiña hura haunditza.

Irakurri berria didazu «idazlerik euskaldunen», herri-molderik egokienetan bere pentsamentua eman duena. Hala da Orixek nerretzat. Eta ez pentsa ondorio horretara lritxi naizenik filosofia ta teolojia ta gramatika ta literatura ikasi ondoren. Ez. Holetakorik deus ikasi gabea

nintzanean —egun ere askorik ez dakit— bildu ninduen bere herrikotasunek Orixek. Orduan sartu zitzaidan barnera beste inor ez bezala. Beraz «prejujiorik» edo «aurreiritzirik» ez nedukakenean gertatu zitzaidan kideko gure idazlea. Zer esplikazio lezake horrek, gure herriaren «arnasez» zetorkidala besterik? Ene ustez ez dago beste esplikaziorik. Eta nere uste hori birribil aitorturik, nere baitan dadukadan galdera bat uzten dut erantzunaren zai. Honela da galdera: Gure herriko zenbait irakurleri Orixek barnea ikuitzen ez badie ta osutzen, ez ote da izango irakurle hoiak euskal-sena galduta dutelako?

Bukatzerok, Lizardi haundiaren zerbait kontatu nahi dizut Orixek. Badakizu adiskide haundiak zirela. Eta harrizkeoa ez denez, Orixek askotan izaten zen Lizardiaren etxean eta askotan joaten ziran ere Beretarbideko iturrira elkarrekin. Badakizu Lizardi zer esaten zien bere seme-alabei bere adiskideaz? —«Orixek gizon haundia, Orixek gizon haundia». Nik ere hori uste dut: «Orixek gizon haundia», idazle haundia zelako. Zure serbitzari.

Joxe Mari Aranalde

zeruko  
**ARGIA**

Zuzendaria:


**MIREN JONE AZURZA**  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Bulearda-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldiz	Aurrez galdetu
Saimetan (ale bakoltza)	7 pezeta





**BERRIAK**

● Hilaren 8an, Donostian ginen, ZERUKO ARGIA astekari honetako biltzar batetara deia hartua bait genduen.

Bataz beste, berrogeita hamarren bat bildu ginen, bata zein bestea lanik gogotik egiteko prest. Aurpegi ezagunak asko eta ezezagunak are gehiago. Izenez, ordea, ez hain ezezagun.

Agurra ondoren, aurrez prestatutako zenbait txosten irakurri zen, bailadaz bailada eginikoak eta zenbaitek pertsonalki burutu eta biltzar hartarako propio bidalitakoak ere.

Ondoren, taldetan banatu ginen, aurrez entzundako txosten haietaz talde bakoitzak nor bere iritzia azaldu eta aztertzeke asmatan. Gero, denak berriz bildurik, denon iritziaz entzun ahal izan genituen elkarrizketa bizi eta ireki batez.

Azkenik, Z. ARGIAko zuzendariak berak eskaini zigun bere txostena, gure astekariaren etorkizunari bete betean dagokion arazo bati atxikiz.

Hurren batetan mintzo ahal izango dugu, nonbait, biltzar garrantzitsu honetaz, zenbait berri eta ondorio zehatzagorik aipatuz. Gaurko, adimeneko zurrunbilan ideiak barretzen diren artean, biltzar honen berri emateari bidezko deritzagu, albistaritari zor zaiorenagatik, alde batetik, eta irakurleak jakin dezan, bestalde, badela aldizkari honen arduradunen artean halako kezka, axola eta aurrera jo nahi bat.

Diogun, azkenik, honako biltzar hau guztiz interesgarriak iruditzen zaizkigula, besteren berri eta iritziaz ere jakin ditzagun, betiko betikotan ezgaitzan loak har, eta eraz, moldez, zentzuz eta mamiz guztion artean eta guztion onetan aldizkari hobe bat lort ahal izan dezagun.

● Biltzarra amaitu baino lehen- txoago hanka egin behar izan genduen, bazkal aurretik Zarautzen nahi izan bait genduen sartu-irten bat egin.

Euskal Liburu eta Diskaren Azoka ospatzen zen Zarautzen. Joan irailan eta Euskal Astearren barrena eratzekeoa zen, baina, zenbait gertaera samingarrak medio zela ez ospatzea erabaki zan.

Aurtengo honekin zortzigarren urtea dugu zarautzarrek liburu eta diska azoka eratzen dutela. Baldin oso oker ez bagaude, beraz, Euskal Herian eratzen hasi zen lehena.

Hala ere, geroago sortua den azokaren batek edo bestek ospe, entzute eta ezagupen gehiago lort ahal izan du. Arrazoiak nahiko ulertezazak dirateke. Izan ere, zenbait azokak handik ete hemendik laguntza izan duten artean, Zarauzko hau Herriak eta herritarrentzat eratu izan da, eta bertako ikastolaren alde, gainera, praktikotasun bati begiratuz.

Zarauzko Azoka hau, bestalde, herri mailan eratu ohi da. Editorialek ez dituzte beren "stand" delakoak aurkezten, aitzitik, Guraso Elkarteak eskatzen ohi die berak aukeratutako editorialei zenbait liburu eta diska depositotan, salmentaz komisio bat irabaziz eta saltzen ez diren aleak berriz igorraziz.

Sistema guztiz herrikoia, praktiko eta ereduagarria zarautzarren hau, gaur egun beste zenbait herritan ere moldatu ohi dena. Propaganda zolia, "stand" dotoreak eta katalogo aberatsak baino, giro herrikoia bat, aurpegi ezagunak eta helburu jakineko eta txalogarri bat izan daiteke, askotan, jokabiderik onuragarriena.

**AIPAMENAK**

● Urriaren 8an, eta azken hermeretzi urteetan ohi denez, Bergaran eratu zen honen entzute konziertoa. Bertan ziren —ohi denez ere—, Orfeoi Bergarra eta Bilbako Orkestra Sinfonika delakoa. Jendea ere erruz, batzuk musika eta konzierto zale direlako, eta beste zenbait, Bergarako konziertoan agertzeak betidanik izan duelako halako dotoretasun bat. Programan, Carl Orff musikarali ospetsuaren "Carmina Burana".

1803 urtean, Bavierako Benedik-

teuren izeneko konbentu batetan, XII eta XIII mendeetako zenbait herri kanta agertu zen, hots, amoriozko kantak, edari kantak, jai kantak eta beste, Erdi Haroko koblakari gisakoek kantatu ohi zituztenak. Hizkera gogor eta gordin batez burutuak eta moldatuak, sasoi hartako giroari atxikiz eta kantarien herri mailan, haien kezkek eta grinak azalduz, bizitzaz zuten zentzu samina agerraraziz, egunetik egunera bizitzaren gurpiletik irten ezin larria.

Ehun urte beranduago edo, Carl Orff deutchlandar musikariari Erdi Haroko kanta haien berri jakin zuen eta guztiz liluraturik kanta zahar haiek armonizatu eta orkestratu zituen, 1937 urtean Francfort-en lehen aldiz konzierto gisa ezagutaraziz, "Carmina Burana" izenaren pean.

Egunak joan eta egunak etorri, zenbait urteren buruan, horra hor azkenik Baierako kanta zaharrak Bergaran, Ariznoako San Pedro Elizan gainera. Eta diot "gainera" zeren harriturik nago nola beste zenbait kanta eta literaturatan hain zitalki azaldu ohi den zentsurak ontzat eman dituen deutchlandarren gordinkeriak, eta gure Euskal Herri honetako eliza batetan, gainera! San Martin Agirre eta Frantzisko Borxa iratzarriko balira... Amaika ikusteko jaio ginen:

*Si puer cum puellula... moraretur in cellula...*

Eta emen aipatu ezinezko beste hanibat. Nonbait, gure inkisitoriek ez dakite latinez, edota, are gutiago Erdi Haroko aleman zaharra. Orain- txer hasiko dira ikasten. Edozein postura baietz!

Irailan Donostian eratu zen Euskaltzaindiaren hilero biltzarrean Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi jaunak euskal izenei buruzko azterketa bat aurkeztu zuen euskaltzainek hartaz erabaki zezaten. Berri hau jakin bezain laster, Satrustegi berari zuzendu genion zenbait galderatxo elkarrizketa gisa, ZENBAT GARA saileko irakurleentzat erantzun zezan erre- gurekin.

Bai azkar erantzun ere Urdiaingo erretoreak. Eta egiten genizkion galderari erantzun ezezik, bai eta beste zenbait puntu interesgarri erantsi ere, guren osagarri. Bihoakio ba gure nafatar purrkatuari gure eskerrik zintzoena, eta, honenbestez, hemen dituzu irakurle nolabait moldatu ditugun galde-erantzunak:

—Satrustegi jauna: Euskaltzaindiaren azken biltzarrean, Euskaltzaindiari berari berak aurrez eskatu zizun euskal izendegi berri bat eskaini diozu. Zer dela eta orain beste izendegi bat?

—Denok dakigu, euskal izenei buruz, gure arteko jatorra eta sortu ohi zaizkigun trabak. Jende asko da, legearen indar pixkaren bat izan dezakeen agiriren bat Euskaltzaindiari eskatzen diona. Giza izenen bilduma oinarritu baten behar gorri ikusten zen, beraz.

—Bai, baina, lehen ere ez ote genduen ba euskal izendegirik?

—Bai, izendegiak ba ziren gure artean. Bi dira, batez ere, orai gogoan ditudanak, garrantzitsuenak, alegia. Arana-Eleizalde jaunena aurrerapen haundia izan zen bere egunean, eta berari zor zaio gehienik euskal izenen kezka hau. "Izendegia", halare, euskal izenen zerrenda ez baino, izen euskeratuen bilduma genuen: itzulpena.

Euskaltzaindiak 1966 urtean onartu zuen euskal izendegian, berriz, euskal kurtsukoak jasotzen ahalegindu ziren egileak; hori du bere alderdi ona. Iturriak ditu eskaz, eta legearen aurrean ez jakin nora jo. Oztopo latza.

—Iturriak eskasak, diozu. Eta zuen iturriak?

—Ez da bat-bateko lana iturrien azterketa; ez eta oso atsegiña ere. Gaurko gure izendegitxo hau, denborarekin ugaritzen joango denaren hasiera besterik ez da. Naparroan ditugu iturri nagusienak, IX mendetik hasitako paper bildumak ba dira. Artxibo Nagusiko agerpena —katalogoa—, berrogei ta hamar liburu marduletan dator. Horrekin batean Leire, Irantz eta Iratxe-ko bildumak kontuan euki ditut. Gipuzkoak, Araba eta Bizkaia aldeko

berriak, San Martin, Urrestarazu, Lizundia, Bastarrika eta beste zenbaitzuek eman dizkidate. Donostiako Euskaltzaindiaren ordezkaritzarekin ere hartu-eman estuan egon naiz.

—Eta legearen aldetik zer eskain dezake zure izendegi berri honek?

—Izendegi berriak lege-oztopo guztiak zelaituko dituen itxaropenik ez dut. Eta hau gauza birengatik: legea bera oso atzeratu gelditu da, eta lege-gizonak lehengo lepotik izango dute, noski, burua. Trabak sortu nahi dituenak, gero ere sortuko ditu. Hori gabe, borrokarik ez genuke.

—Itxaropen guti, orduan?

—Ez, ez. Horrek ez du esan nahi, gau erdiko ahuntz-etzularen pare utzi nahi dugunik egindako lana. Geroari begiratu ez gina dela, bakarrik. Lege gizon jatorrak ba dira gure herrian, eta hoiaren artean baliatuko da. Besteak, ostikolariak, ez daturat batera heuren iritzian, eta batek baztertua on-hartuko du besteak. Bide hortatik aurreratuko dugu gehienik. Halare, gizon hauek ez dira betirako, eta geroko ereintza egina izango da. Azken urte hauetan egindako lana ere ez da makala.

—Ez, agian ez da makala izanen, baina, zerbait egin dugulakoan eta horra gero "Eneko" izenarekin gertatu zaiguna. Izen ezin jatorrago, ezagunago eta sustraituago zela eta, funtsezko arrazoirik gabe kendu digate bat batetan...

—Bai, baina, kontuan izan, "Eneko"ren arazo guretzat oztopo baino lege-gizonendako kaltegarriago izan dela, behar bada. Ez-ikasien mailan gelditzen dira, askotan. "Eneko", gainera, sandutegian dago, zeuk noizbait adierazi izan duzun bezala. Nortasun pixkaren bat duen jaezarendako ez du indarrik "Eneko" erabakiak; eta berdin ontzat ematen dute. Neure begiz ikusia. Horra hor aurrerapena.

—Eta nola gerta daitezke horrelakoak ba?

—Nola gertatu laizken...? Erantzuna bihar edo etzi. Ekintzak garrantzi gehiago du gaur neretzat, argibide dialektiko guziak baino.

—Eta praktikaz zenbaterainoko indar izan dezake zure izendegi oinarritu hori hauzirik gerta badadi?

—Hauzian indarrik izatekotan, hauzilariek berez emandakoa beharko luke izan. Zaila, beraz. Baina, zorionez, gure itxaropena ez da hauzi-maisuengandik letorkeena. Herriak du azken hitza berea. Orai arteko jokabidean ez goaz hain gaizki.

—Eta zenbat izenek osatzen du ba zure izendegi hori?

—Zenbatek? Zazpirehunek, bataz beste. Eta ez ditugu aztertu guziak sartu. Gehiegirik ere ez ginuen hasieratik sartu nahi.

—Eta nola egingen da zabalkundea? Argitaratu emateko asmorik bai ala...?

—Berri jakingarri duzu hau: "La Vasconia" diru etxeak bere gain hartu du zabalkundea. Berak argitaratuko digu, eta ez dugu diru trabarik izango. Behar bada egundaino Euskalerrian ezagutu ez dena: berrogei ta hamar mila zenbaki aterako ditu; eta, entzun! ordaintzerik gabe, bere kontu hartu bait du ordaintza. Merez du esatea.

—Azkenik, nolabait amaitzeko, zer kontseilu emanen zenieke bere haurren bati euskal izena jarri nahi hoketen gurasoei?

—Euskaldun guziak euskal izenak erabilteza. Ongi aztertutako izene- kin ez ba-da Madrilerara ez jotzea. Aurrez irabazia izan behar du hauziki.

—Berritxo ere esker mila jauna, ene eta irakurle guztien izenean. Eskerririk asko!

● Bilbako EL CORREO-El Pueblo Vasco (bi izenen proportzioa na-

bari da, bai) delako egunkarian, "Arba" izengoitiz izenpeturik pare bat artikulu irakur ahal izan dugu. Ez dakigu nor den, ez eta noiz hasia den idazten ere, gu geu egunkari horren ohizko irakurle ez garenez, oraintsuan ahoartu bait gara hartaz.

Irakur ahal izan diogun lehen artikuluari Otra prueba más de que "Lauburu" y esvástica son una misma cosa deritza, eta bigarreanean, berriz, "Bitain"ren BIGARREN ATALA izeneko liburuari (Kuliska Sarta, 73) aipamen laudariotsu bat egiten dio. Egia esan, potzuten gara potzu halako artikulua irakurtzeaz bat. Betoz ordu onean eta izan dezatela bidezko den jarraipena.

Dena den, "Lauburu"ari dagokion artikuluari punturen bat edo beste erantsi nahi genioke. Diogun, lehenik, harako artikuluan bi parte nahiko desberdin daudela. Bata Frantziako Okzitania deritzan eskualdeari dagokiona, eta bestea, "Lauburu"ari berari.

Okzitaniari buruz ari den partea oso ona da, eta berri jakingarriak ere ematen dizkigu bertako hizkuntzaren alde, herri kontzientzia berpizteaz, bertako abertzaletasunaz eta beste. Hala ere, Okzitania eta Euskal Herriaren arteko etnia estudioei buruzkoan, "Arba" guti edo oker irakurri du; nonbait berak besterik aditza ematen badu ere.

Jose Migel Barandiaran ezezik, Akitaniako historiak eta kulturaz mintzatu direnak asko dira, bai eta Euskal-Okzitan arteko zerkusiaz ere. Pirineo guztian zehar, Joan Corominas maisuak toki izenen azterketaz eginiko estudioek ematen digute argirik aski.

Biarno euskaldunetz (Okzitania partean hau ere, eta bertako Eskiula izeneko herrian oraindik euskaraz egiten delarik) lan eder bat eskaini zigun Txillardegik HUNTANZ eta HARTAZ liburuen barrena, hamar saia-keratetik bat hauzi honi atxikiz. Beraz, Okzitania parte baten euskaraz mintzatu zenaren agiriak ditugu, eta oraindik orain, okzitan herri euskaldun bat ere badela, Eskiula (Eskiule) alegia. Hau honela delarik, nork esan "Euskal-Okzitan" artean ezer ez dela?

Eta, zorionez "Lauburu"az —biribiltzuz zein lerro zuzenezkoaz—, E. Frankowski mintzatu zen, eta geroago L. Colas, hilarri biribilak azterteaz, 1920 eta 1925. Ez da ba, atzo goizeko ipuina. Eta ez zuten dudarik "Lauburu" eta "Swastika" gauza bera ez zirenik. Honengatik, ez dugu inolaz ere ulertzen nola idaz daitezkeen oraindik: "...se ha mantenido insistentemente por algunos la falta total de parentesco...".


Baina, oraindik gehiago. Gai hau sakonen eta luzean aztertu zuena Pedro Garmendia genduen (ikus La Swastika. Anuario de Eusko-Folklore. XIV-1934). Hura irakurritz ohartu ahal izanen da "Arba" kazetalaría eta bai honetaz jakin nahi duen irakurle ere, ez bakarrik "Lauburu" eta "Swastika" gauza bat direla, mundu guztian eta mendetan zehar hedaturik dagoela baiziki.

Europa zaharrean, Danubioko Eneolitikoko kulturako zeramiketan aurkitzen da, Grezia zaharrean ere bai. Bai eta Bilbako Museo de Arte Moderno delakoan ere, andere batek erregalaturako Japoiko lakazo kutxatxo batetan ere, zenbait "lauburu" agertzen da beste irudi askoren artean.


Beste honenbeste San Millan de la Cogolla-ko eliza visigotikoaren kapitul batzuetan, eta Campillo (Zamora) herriko eliza zahararen hegalean ere. Eta zer esanik ez Euskal Herriko Erdi-Haroko hilarrietan.

Beraz, "Arba" jaunak —dena den— ez digu gure ustetan gauza berririk deskubritu.

AMATINO



Bastarrika, Sarriegi, Aizpurua, Har- tze, Alday, Agirre



Agirre, Ondarzal, Ibarzabal, Una- nue, Zubizarreta



Knör, «Basarri»



Garate, Ugalde, Irigaray



«Bordelia». Bordel bertsolaria jaio zen etxeko harri marratua, «lauburu» eta guzti



# GURE TXOKOTIK Teoria

## ZURETZAT

Bai, zuretzat, irakurtzen ez duzun horrentzat idazten dizut. Gai zailak erabiltzen omen ditugu. Zenbait idazlan irakurri ezinezkoak omen dira, eta agian, aitzakiak aitzaki, ez duzu arrazoiaren faltarik izango. Gu hemendik, benetan interesgarri zaizkigun gaiak, labur adierazten saiatuko gear. Kronika gisa idatziko dugu.

## EUROPA

Azken aldi honetan, frantses agintariaren deklarazioak direla merio, Europaren arazoa berpiztu digute. Zuri eta neri interesgarria zaigun arazoa, noski.

Gure galdera soila hau da: Europara joateko illeterik bai ahal dugu?

Hara, Europa berriaren sortzaileek, 1949 garrenean jarritako baldintzak:

—Gaurregun nazioak ezin daitezke bakarka bizi. Baina bakoitzaren nortasuna zaindu behar da.

—Askatasuna da oinarrikerik sendoena. Askatasuna eta gizalegea. Diktaduraren aurkakoa, beraz.

—Demokrazia, kritikak egiteko eskubidea, berdin nork bere pentsaera adierazteko ere.

—Erakunde edo instituzio politikoek pertsonaren zerbitzurako behar dute izan.

—Agintea eta askatasuna ez dira elkarren etsal, kide eta bidelagun baizik.

—Europar sortzen diren erakundeetan, langileak zer ikusi haundia izango du.

—Bertan sartzen diren estadiak, Giza Eskubideen Deklarazioaren aldekoak izango dira. Bistan dago, oraingoz, zenbait estadi ez de la Europar sartzeko modukoa.

Hayan, 1949 garrengo Maiatzean.

## SOZIALISMOA

Duela bi hilabete, Alfredo Fierrok Mundo Social-en idatzitako lan bat irakurri dut. Langileriari begira, korporatibismoaren gertaera aztertzen du, eta ondorenean kristau demokraziak eman duen erantzuna jasutzen. Liberalismoaren aurkako mugimenduaren aurka sortua, baina marxismoaren kolektibismoan erori gabe. Langile orok, baita katolikoak ere sozialismoa onartuko delakoan dago. Horretarako kristau talde batek Santiago de Chilen egin zuen azterketa hartzen du oinarritzat, «Ebanjelioaren» erantzuna, praktikoa eta egiazkoa behar dela aitortuz.

Dirudienez, ebanjelioaren erantzuna sozialista behar du izan. Baina hitz hau gehiegi erabiltzen ohi-tuta gaude, eta ez dakit bere mami, gatz eta piperra ez ote diogun kendu...

## LIBURUAK

Langileok, liburu zerrenda egoki bat beharrezkoa dugu. Ez noski edergailu gisa, lanerako eta bururakako tresna bezala baizik. Liburu mamidunak, laburrak, ulertzeko eraokak ditugu beharrezkoenak. Euskeraz argitaratzen direnen aipamena egiten da han hemenka. Guk erderaz argitaratutakoen berri emango dugu.

Fontanela argitaldariai aurtengo udan, «PANORAMA DEL SINDICALISMO EUROPEO» bi liburutan eskaintzen digu. Europar zehar sindikalismoaren egoera eta lanak ezagutzeko oso egokia dela derizkiogu. Texto ugari ere eskaintzen digu, aurrerantzerako erabakien ezaugarri bezala.

Irakurleak, Grecia, Portugal eta beste zenbait naziotako sindikalismoaren berririk ez du jasotzen.

Mikel Ugalde

Oharra: Johan Galtung, noruegatar soziologoa da. «A structural theory of imperialism» deritzan lana argitaratu berria du. «IMPERIALISMOAREN TEORIA» hau emango dugu zenbait ataletan, hiruzpalau artikulutan.

Emateko era didaktikoa izaten saiatuko da. On litzake, beraz, artikulok ebaki eta gordetzea, urrengok errazago ulertzeko, ariari zuzen jarraituz.

## I. Inperialismoa, noiz da guziz osatua?

Inperialismoak, lehenik, nazio baten beste nazio baten gainean bere nagusigoa edo jaurgoa ezarria edukitzea, eskatzen du. Nagusitasuna, haatik, berezia izan behar du; nagusigo oro ez bait da inperialismo Alemanek, esaterako, Frantzia hartua eduki zuten denbora ez litzake berez inperialismo deitu behar.

Johan Galtung-en teoria garbiko agertarazteko, lehenik, soziologo honek darabilaren «hiztegia» eman eta azaldu behar da.

Hasteko eman ditzagun «Erdikoa», eta «Periferia».

Erdikoa, nagusi den nazioa da. (Ez dut «erresuma» hitza erabiltzen, beraziaz. «Erresuma», Estadua adierazteko erabil daiteke; «Nazioa», berriz gure «Herri» Konzeptuaren pareko).

Periferia, aldiz, menperaturik dagoen nazioa da.

Bai Erdikoa eta bai Periferia, biak bi zatitan zatituak daude. Erdikoa baditu barnean bere erdikoa eta periferia. Hemen «erdikoa» eta «elite» pareko dira; baita «periferia» eta «masa» ere. Orobat gertatzen da Periferian. Honek ba-

ditu bere erdiko edo elite, eta masa.

Inperialismo konzeptuan, beraz, zati edo osagarri hauek aurkitzen ditugu. Osagarriek, beren artean, anitz hauzi (conflits) eta adostasun (harmonie) dute. Hain zuzen, inperialismoaren «estrutural teoria» hontan datza, hots, Erdiko eta Periferiaren arteko hauzi eta adostasunak, sistemaren barnean, nola guduak izan nahiz elkarrekin diren, azaltzean.

## HIRU BALDINTZAPEN

Inperialismoak, osoa eta beta iza-tera iristeko, hiru baldintzapen bete behar ditu:

● Erdiko klase nagusiak eta Periferiako gizarte-sail gorengoenak ardura berberak eduki behar dituzte, hots, adostasuna dago «Erdiko erdikoa» eta «Periferiako erdikoa» artean Adibidez, Frantziako eta Arjeliako burgesia gorenak ardura berberak zituzten, Arjelia frantsesa zen aldian.

● Erdiko eta periferiaren arteko hauziak eta borrokak gordina-ngo izan behar dute nazio menperatuan, nazio nagusi edo menpe-

ratzailean baino. Adibidez, Inperialismo Britanikoaren denboran, etsaitasun bortitzagoa zegoen Indiako burgesiaren eta masaren artean, Britaina Nagusiko burgesiaren eta langileriaren artean baino.

Horrela, sistema inperialista are bortitzago egiten da nazio menperatzailearen barnean klaseen arteko bizimaila urbiltzera doanean, esan nahi da, goikoen eta benekoen arteko aldea murriztera doanean Sistema inperialista, aldiz, haustera eta suntsitzera doa, nazio menperatuan eliteak eta masak elkartzera etortzen diranean (adibidez, askatasun boroka batasunean eramana).

● Hirugarren baldintzapena, inperialismoa oso bete gerta dadin, hau da: nazio azpiratzaileko periferiaren eta nazio menperatuko periferiaren ardurak eta interesak ados ez izatea, hau da, elkarren aurkakoa gertatzea. Duela zenbait denbora, hemen bertan agertu genduen, tesis hori bera aldean du biziki. A. Emmanuelek, Alegia, erresuma aberatsetako langillerien interesak, herri azpiratutako eta atzeratutako langillerien kontra daudela. Etsaitasun honek, bada, sistema inperialista are, indartsuago egiten du Erdiko nazioak, berak duen nagusiotik, biltzen eta jasotzen dituen irabazpenak eta abantailak, hein batean barneko periferiara ere banatzen direlarik, nazio inperialista barnean halako elkartasuna sortzen da klaseen artean, non zaila bait da —ezinezkoa ez bada—, bi «periferien» arteko batasunik eta estratejia komunik sortzea.

Johan Galtung-en teoriak, oraino behintzat, ideologia kutsu horirik ez du nabari. Ez bait du aurrez dogmarik ezartzen. Ez du esaten nahita-ez eta beti nazio nagusiko burgesia eta nazio azpiratutako burgesia elkarrekin ados eta elkarri loturik egon behar dutenik. Ez eta ere, ez du esaten nazio inperialistako langilleriak eta nazio azpiratutako langilleriak ardura, interes, estratejia eta jokabidea beti elkarrekin eta beti batera eramango dutenik.

Ez du, noski, ukatzen horrela gerta daitekeenik ere. Gertatuko den ala iz den, hori nazio-gizartearen egitura, ordea, ez du ekonomia osatzen. Ekonomiarekin batera eta loturik, beste bi «eskuale» ere aurkitzen dira, hots, politika eta ideologia. Badirudi hau guziaz hartzen duela kontuan, Galtung-en teoriak. Horregatik Lenin-en inperialismo-teoria baino konplutuagoa dirudi. Hontaz jarraituko dugu urrengo atalean.

G ANSOLA



Izango ote dugu Europarako txartelik?

## JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA  
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK  
Hernani, 4 DONOSTIA

## CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean —  
— diruketa-saillean —  
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI  
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

- |              |                 |            |               |            |
|--------------|-----------------|------------|---------------|------------|
| Mondragoi    | Zumarraga       | Bilbo      | Ermua         | Munguia    |
| Aretxabaleta | Elgoibar        | Legazpia   | Eskorriaza    | Yurre      |
| Elorrio      | Markiña         | Irun       | Izarra        | Bermeo     |
| Barakaldo    | Bergara         | Durango    | Ondarrabia    | Lasarte    |
| Ondarroa     | Altsasua        | Amorebieta | Galtzaraborda | Enenderian |
| Andoain      | Eibar           | Azpeitia   | Lekeitio      | Santurce   |
| Plazentzi    | Tolosa          | Ernani     | Llodio        | Zumaya     |
| Onati        | Pasai San Pedro | Zarautz    | Recaldeberri  | Donostia   |
| Ormaiztegi   | Erranderi       | Sestao     | Agurain       | Iruña      |
| Beasain      | Billabona       | Ordizia    | San Andres    | Deba       |
| Gernika      | Gazteiz         | Antiguo    | -Donostian-   | Azuola     |

## JOSTUNDEGIA

## MODISTEGIA



Urbieta, 66

DONOSTIA

## ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



# ARANZADI ELKARTEA

(II)

Aurreko lan batean ere Aranzadi Elkartearen berri eman genuen bere sorrera, egite ta elkarkideak zein ziren adieraziaz.

## ESPELEOLOGIA TALDEA

Elkarteko Talderik zaharrenetakoa dugu hau. Ataungo Trotskaeta zuloaren aurkiketak Elkartearen sorrerarako izan zuen eragin handiaz mintza ginen aurrekoan.

Karaitzeako mendi ugari da gure artean eta hauetan harzulo asko izaten denez beste aurkiketen itxaropen handi bat zuten orduan; geroz egia bihurtua.

Bere lehen lana, gaur oraindik aurrera doan Gipuzkoako zuloen katalogo bat eratzea izan zen. Honela 884 leize eta harzuloren berri emanaz, lan honen lehen saio bezala, katalogo bat argitaratu da.

Katalogotze lan hau utzi gabe, azterketak egiten hasi dira zulo garrantzitsuenetan, eta berrietako oroi edo planoak egiten, topografia lanetan alegia.

Lan hau mendi kateak banan-bana hartuz ari dira egiten. Oraingoz Aralar eta Degurixakoetan jardun dira bereiziki. Lurraspian, ezagutzen ez dugun ur asko doa. Ubide hoiak ezagutu eta bere erabilasunaren neurketak egitea Talde honen egiterik nagusienetakoa da.

Lehen-Historiako aztarrentegi gehienak harzuloetan direnez gero Talde honek, Laugarren Haro-nagusi Lehen-Historia eta Paleontologia Taldekoekin ezinbesteko lokera du.

## LEHEN-HISTORIA TALDEA

Jose Migel Barandiaran Jauna honera itzuli zenean —kanpoan egoneraia bait zen— paregabeko bizitasuna hartu zuen Talde honek. Aranzadi Elkartearen barnean bereratu zituen 1936az gero utziak zenden azterketak.

Bere babesean talde bat sortu zen eta egun haziz doa jakintza ezberdinetatik Lehen-Historiako ikasketak osatuz. Gure arbasoak ezagunago izango ditugu honela.

Berpizte honen ondoren karreradun gizonak beti izan dira Talde honetan. Hauetatik batzuk beren doktor-gai tesisak gure Herriko Lehen-Historiaz egin dituzte. Munibe eta beste aldizkarietan, Araba, Nafarroa eta Bizkaian batez ere, eten gabe argitaratutako lanak direla bide Europako Lehen-Historia eta Paleontologia alorreko artez-keta-leku aurreratuenekin har-eman handiak ditu Talde honek.

Talde honek, denbora guti barru,

aurrerago aipatzen ditugun jakintza hoietan, iaio eta bereizi diren jendeak iazango ditu bere barnean.

Honek ere balditu lokera beste Taldeekin: Arkeologiakoekin, hau Lehen-Historiaren jarraitzaile delako. Etnografiakoekin, Lehen-Historia Lehen-Etnografia besterik ez delako. Zoologia eta Botanikakoekin, aipatutako Paleontologia eta Palinologia hauen adar besterik ez direlako.

## ARKEOLOGIA TALDEA

Ondarrabia eta Irunen egindako erromatar aurkiketak direla-ta, sortu berria den Taldea dugu hau Elkartearen. Berria bada ere garrantziko lanik egin du dagoeneko, Irungo Santa Elena (Ama Xantalen) ermitako azterketak lekuko.

Antzinatik erlijio-leku izana hau: lehenik erromatar hilerri bat azpi azpian, gainean erromatar eliza bat, geroz lehen garaiko kristau eliza ta denen gainean gaurko Santa Elenaren ermita.

Aurkitutako ondakinak garrantzikoak dira eta denbora guti barru Munibe aldizkarian izango dituzu.

## ETNOGRAFIA TALDEA

Jose Migel Barandiaran Jauna Elkartera etorri zenean berpiztu zen Talde hau ere. Berehala «Anuario de Eusko Folklore» izeneko aldizkaria ber-agertzen hasi zen. Aldizkari hau 1920an J. M. Barandiaranek berak sortu zuen eta 1936 geroz ez zen gehiago argitaratu.

Geroz bederatzia ale atera dira. Etnografia alorrean egindako lanak biltzen ditu aldizkari honek.

Nafarroa eta Bizkaian bezala Gipuzkoan ere sortu berria da Etniker taldea, besteetan bezala J. M. Barandiaran zuzendari dala.

Azterketa talde honetako laguntzaile bakoitzak nor bere herriko lana egiten du, herria hobekien ezagutzen dutenak hauek bait dira eta jendearekiko ateak ere zabal-erraz bait dituzte.

Beti Jose Migel zuzendari dela, galdera sail zehatz batzuek badi-tuzte eta nor bere muturretik ibili gabe denak aldian behin biltzen dira.

Antropologia Social deritzan Taldekoekin lokarri herstuak dituzte.

## SOZIAL ANTROPOLOGIA TALDEA

Duela guti sortua da. Euskalerrira datozen atzeritarrek nolaz eratzen edo integratzen diren jaki-

tearren zenbait enkueta egin dute. Hau izan da beren lehen lana.

Ez da denbora asko ondoren batzuk argitaratu dituztela. Jende gehiagorekin jarraitzeko asmoa dute. Euskaldun baserritarrak hiri haundietara datozenean duten erateaz ere azterketak egin nahi dituzte.

Zoologia alorrean hegazti eta mozorroak ikasten dituzten bi talde badira Elkartearen: Ornitologia eta Entomologia Taldeak.

## ORNITOLOGIA TALDEA

la Elkartearen sorreratik diharduenetakoa dugu hau ere. Paseko hegaztien azterketari ekin zioten lehenik. Era honetako ikasketak egiteko Gipuzkoa oso egokia zen. Paseko hegaztiei eraztun ugari eransi diete urtero. Aranzadiko eraztun jartzileak beste lekutatik ere deitua izan dira, Doñanako Hegazti Zaintokitik bereiziki.

Europa, Ameriketa eta Afrikan eraztun hauetako asko aurkitu da eta hegaztiaren arazoak argitze-ko harreman zabalak sortu dira hangoekin.

Gaurregun azterketa saio batzuk Ekologiara zuzendu dituzte eta talde hau zabaltzera dator. Biologia ikasle batzuk ugazdun, narrasti ta ur-lurtarrak ihasi nahiz datoz eta Ornitologia Talde hau Hezurduen edo Bertebradoen Talde bilakatzeko zorian da.

## ENTOMOLOGIA TALDEA


Duela zortzi urte sortuan da, baina hazkera azkarra izan du. Mozorroen artean txinbeletak ikasi dituzte bereiziki eta Gipuzkoan agertutakoen bilduma zehatz bat egin zuten, mueta bakoitzeko aldaketa garaiak adieraziaz —hauetatik asko har garaian nekazariatzat oso kaltegarri bait dira.

Erakundeak, talde honen lanak zuten garrantziaz berehala ohartu ziren eta egindako bilduma horren iraupen eta ikasketarako lantegi egokiak eratu zizkieten. Bizkaia, Nafarroa, Logroño, Araba t. a. mozorro harrapatokiak beregain dituzte, izan ere baso eta soro gaitzak sumatzeko Talde honen egitea beharrezko bait da.

Botanika alorrean ere bada beste talde bat:

## MIKOLOGIA TALDEA

Onddoak ikasten dituzte hauek. Nahiz sortu zaharra ez izan, bada herrikoiena. Jende asko inguratu zaie beren dibulgazio lana dela bi-



Goitik behera, «Andre-Leiza»n

de: Hitzaldi, diapositiba agerketak, ondo lehiaketetan mahai-buru agertuaz, argazki eta erakuskai ederrak argitaratuaz, t. a.

Jendeen aurreko lan honetaz kanpo Euskal-Herriko ondo edo perretxiku handi edo makroskopikoen katalogo bat moldatzen ari dira. Lan honen aurrerapen gisa Muniben batzuk argitaratuak dituzte eta egun osatuz doaz.

Onddo handiak ezik mikroskopikoak ere jakingarri zaizkie hauei, batez ere landareetan gaitzak sortzen dituzten haiek; Gure haritz eta gaztainak gaitzen dituztenak ere era honetakoak dira.

Nahiz eta bakoitzak bere bideari jarrai, talde ezberdin hauek harreman herstuak dituzte elkarrekin. Bada orain Talde berri bat sortzeko asmoa ere:

## IZADI ZAINDARI TALDEA

Aranzadi Elkarteko aspaldiko kezka da hau; Direla urte guti gure ibaien zikinaz aldirio lan batzuk argitaratzen hasi ginen, Muniben alegia, baina ixil erazi egin ginduzten.

Talde honetakoak hezurduen, Entomologia, eta Botanika-koekin harremanak izango dituzte: Galbidean ditugun basoak zaindu eta berpiztu, hauetan gal-erazi ditugun hegazti eta ugazdunak ugaritu, gu baino aurrerago doazen herrietan, autopistetatik urrutit gabe, dauden bezala.

Lehen-Historia, Arkeologia eta Etnografiakoekin ere izango dute zer ikusia: gal —zorian dauden

hainbat lehengo— gizonen erailketak larun dezaten.

Argi dago, ordea, oihu egitea ez dela nahikoa. Agintari eta diru laguntza ere nahi-ta-ezkoa dugu, bestela «Excavadora-en» aurrean galduko da gurea. Urte bete barruan e. b. mendi bideak direla bide Baiarrateko trikuarria eta Errengako bi harrespil edo cromlech puskatu dizkigute eta Behobia-Bilbao autopistak Ermita harzuloa.

Aurreko lanean ere esaten genuen elkarkideen 200 peztako urte-saria farregarr diela Elkarte honen lan-beharrei erantzuteko. Bi bide genituen aurrerako: edo urte-saria jaso edo elkarkideak ugalditu. Bigarren honi eutsi nahi diogu.


Talderen batean lan egin nahi baduzu ateak zabalik dituzu, Jakin zale bazara azterketa-lanak MUNIBEN izango dituzu eta dibulgazio-koak ARANZADIANAN. Elkartekoek aztertzen ditugun alderdi hauen zale ez bazara baina bai euskaltzale, duela 25 urtekoie lagundu zieten bezala, herritik sortutako Azterketa Elkarte honi lagun dezaiokezu. Zuk duzu orain hitza, Elkarte honetaz zerbait gehiago jakin nahi duenak edo elkarkide izan, idatzi beza zuzenbide honetara:

ARANZADI ELKARTEA

(Sociedad de Ciencias Naturales)  
Plaza de I. Zuloaga (Museo)  
DONOSTIA

Izena eta zuzenbidea argi jarriaz.

ARANZADI ELKARTEKOEK



Ajanguizeko basarri-ataria

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

## FANDERIA

### ERRENTERI



# Alfabetatze batzordearen oinarri arauak

Euskaltzaindiak, Donostian, 1972ko Ekainaren 30ean egindako batzarrean onartuak

Alfabetatze taldeko zenbaitek eskaturik, Araudia eta Ikastarotako Testuak argitara ematen ditugu.

1. Alfabetatze Batzordea, Euskaltzaindiaren batzordearik bat da, Euskaltzaindiak bere batzar arrunt batean bi urterako izendatua.
2. Batzorde honen xedeak, hauek dira: euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Horrekin batean, euskeraren inguruak gaiak sar daitezke; euskal literatura, euskeraren batasuna, euskeraren geografia eta dialektologia, eta abar. Alfabetatze literarioa, beraz. Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordearenak. Zenbaitek beste gairik erabili nahi baldin badu, ezin du Euskaltzaindiaren ez eta Alfabetatzearen izenik hartu.
3. Alfabetatze Batzordeak hiru sail izango ditu: bi Euskaltzaindiaren artean (gidaritza saila eta bulego saila), eta hirugarrena irakasleen artean osatua.
4. *Gidaritza Saila*. Sail honek, ahal izatera, Euskalerriko bost eskualdeetako (Bidasoaz hanga, Nafarroako, Gipuzkoako, Araba eta Bizkaiko) jendez osatua izan behar du, euskaltzain oso bat lehendakari dela. Idazkari bat izatea ere komeni da. Sail honen zereginak: irakurketa kasu egitea, testuei oniritzia ematea eta Euskaltzaindiari batzarrera aurkeztea, alfabetatze irakasleen azterketak egitea, ikastaroen mahaiburua osatzea eta antzerakoak.
5. *Bulego Saila*. Sail hau Euskaltzaindiaren Ordezkaritzetako Bulego idazkariekin osatua da. Sail honen zereginak: burokrasia arazoan artea izatea. Euskaltzaindiaren egongo da Alfabetatze Batzordearen artxibo nagusia.
6. *Irakasle Saila*. Sail hau irakasleek beren artean osatzen dute. Eskualdeka idazkari bana izango da, eta idazkari horien artean idazkari nagusi bat egongo da, beren artean hautatua eta Euskaltzaindiak batza-

7. Alfabetatze ikastaroak Euskaltzaindiaren gidaritza eta babesaz eratzten dira, tokian tokiko Elkarteren baten laguntzaz. Elkarre horren buruak ikastaroa Arautegi honen arabera egiteko erantzukizuna hartu beharko du.
8. Irakasle Sailean sartuak egongo dira orain arte karnetdun direnak eta hemendik aurrera karnet hori erdietsiko dutenak. Gaur karnetdun direnak beren karneta horiek Euskaltzaindiaren etxera bidaliko dituzte, irakasleen fitxerua osa dezin bakoitzak ikastaroak non eman dituen eta abar adieraziaz; eta karnet berria hartuko dute, bakoitzari dagokion zenbaki bereziaz hornitua.
9. Ikastaroaren eratzailak galdeketa bat bete eta Euskaltzaindiko Ordezkaritzaren batera bidali behar dute. Ikastaroa Bizkaitik kanpora egiten bada, bi ale bidaltzea hobe, bat gero Ordezkaritzak Euskaltzaindiaren Etxeko artxibu nagusira igor dezan. Aldamenean doa galdeketa honen eredu.
10. Alfabetatze Batzordeak urtean lau batzar egin beharko ditu gutienez. Bat, orokarra: honetan Sail guztietako erdezkariek bakarrik parte hartuko dute. Beste hiruretan, berriz, Gidaritza eta Bulego Sailetako guztiek eta Irakasle Saileko idazkariak (edo honen ordezkoak).

# LITERATURA

## García Marquez-en liburu berria

"Ehun urte bakardadean" liburu inguru hauetan zabaldu zenean, Márquez-ek bere "Orbela" liburu eta beste zenbait ipnietako irudimena, teknika eta hizkuntza agortuak izango zituela pentsatzen genuen. Ze, harrigarri gertatu zitzaigun "Ehun urte bakardadean", baina ironiagatik, irudimen azkar eta estrainoagatik, hizkuntza aberats, ugari eta sakonagatik harrigarri.

Esku artean dut bere azken liburua. Bere izenburu bitxi eta sujerentea (*La increíble y triste historia de la Cándida Eréndira y de su abuela desalmada*) liburu azken ipuierena da. Baina ez dut uste garrantzitsuenak denik nahiz eta "Ehun urte bakardadean" liburuaren antzeko eskema labur bat izan. Pertsonaje batek —Eréndira— eta paisajek —basamortua— sortzen dute irudimena ipui honetan. Eréndira eta basamortua irudimen-bide dira ipui honetan. Lehen Buendía-tarrak eta Makondo herrirak irudimen-bide ziren bezalatsu.

Bainan Márquez-en liburuak beste mundu berri batetan murgiltzen gaitu: Itsasoa da bere lehen ipuieraren gairen giar, ardatz eta pertsonaje.

Tipula ebakitzea amaitu zuen arte jarraitu zuen aingerua ikusten eta aingerua ikusten jarraitu zuen ikus-ezineraino urrutiratu zenean ere, orduan ez bai zen bere bizitzarako behaztopo, itsasoko mugan zegoen irudimenezko puntu galdu bat baizik.

"Un señor muy viejo con alas enormes" ipuiko azken zatia dugu hau. Hiru egunetako eurro-zaparrada etengabe baten ondoren, itsasoak gizandi bat botatzen du hondartzara. Hegoak ditu, eta aingeru bat dela erabakitzen dute herritarrek. Eta oilategi batetan gorde duten aingeru

### GARCÍA MARQUEZ ETA BERE OBRA

Gabriel García Márquez-en lanaren inguruan aski ongi ulertu ditek Hegomaerikako nobelagintza. Aracatacan (Colombian) jaio zen 1928 urtean, Barranquillan egin zituen bere lehen ikasaldiak eta Bogotá eta Cartagenako unibersitateetan goi mailako azterketak. Ez zuen lizenziaturik lortu, bainan Columbia University-n «honoris causa» delako doktordoa lortu zuen. G. G. M.-ren literatogintza Bogotáko «El espectador» aldizkarian hasi zen ipui batzuk argitaratuaz. Bere lehendabiziko «Orbela» nobela Bogotá argitaratu zen 1955ean. Geroago beste liburu hauk eskeini zizkigun: «El coronel no tiene quien le escriba» (Medellín, 1961), «Los funerales de mamá grande» (Xalapa, 1962), «La mala hora» (Madrid, 1962, egileak onartu ez zuen edizio batean eta Mexico-n, 1966), «Ehun urte bakardadean» (Buenos Aires, 1967) eta beste zenbait gauza garrantziko. Denon ezaguna da «Ehun urte bakardadean» liburuak izan duen zabalkunde eta harrera ona.

Interesgarri litzake García Márquez ezagutzera koan Mario Vargas Llosa-ren «García Márquez, historia de un deicidio» azterketa irakurtzea. (Bere azken liburuaren so-lapatik moldatua).

erdi-hilarekin maitemintzen dira herriko emakume guztiak eta herri berri bat sortuko da inguru ikustera datozen kanpotarren inguruan. Hots ez jantzitako feria, saltinbankien mundua, egunean hamar arrautza erruten dituzten oiloen azoka, armada bihurtu den anderearen ikusgarria. Azkenean, gure gizandia sendatzen denean, hegan aldegingo du itsasoruntz "itsasoko mugan zegoen irudimenezko" puntu bilakatu arte.

Ipui gehienak "Ehun urte bakardadean" liburuaren ondoren idatzitakoak ditu eta guztietan da itsasoa pertsonaje bakar. Bainan zenbait kritiko aurkitu nahi izan dioten bide berria —itsasoarena, alegia— ez dut uste, halare, oso egiazkoa denik, ze "La increíble y triste..." ipuia 1972an idatzia izanik, "Ehun urte bakardadean" liburuaren lineari gehiago jarraitzen dio, itsasoa giar, ardatz eta pertsonaje bakar duten ipuiena baino.

Colombiako Barranquillatik gertu dagoen Aracatacan jaio zen Márquez. Beraz, txikidanik ezagutu zuen itsasoa bainan ez zuen nobelatu. Normalean, Hegoameriketako nobelagile guztiak izan dute oiharra bere nobelaren euskarri bezala. Carpentier irretzan da arau honetatik "El siglo de la luz" liburuaren. Eta Márquez, orain, bere ipui laburretan. Beti esan ohi da itsasoa gai zaila dela. Gure Barojak asmatu zuen oso egoki gaia-ekin, orain Carpentier eta Márquez-ek asmatu duten bezalatsu.

Gauza hauetaz arduratuta dagoenak erraz eta gustora irakurriko du liburu hau. Eserialdi batean. Inportantea dela iduritzen zait, Mikel Lasaren liburuaren osagarri bezala ere, zenbaitek. Lasaren liburu, han aipatzen diren idazleak ezagutu gabe irakurriko baitzuen.

Anjel Lertxundi.



García Márquez ez zuela ulertzen aitortzeko kemenak izan zuen gizarajoa



Eréndira denen artean agortu zuteneko gau triste eta harrigarria

## Euskaltzaindiak onartu alfabetatze-testuak

Batasun aldera dauden artean: P. Altuna, «Hegatsez» liburuan dagoen *Giltza-haurrak* // R. Arregi (id.), «Borrokalari ahaztuak» // J. A. Aranberri (id.) // J. Basterretxea (id.) // R. Bozas (id.) // S. Garmendia «Lurraren kondaira» // J. M. Satrustegi (Hegatsez) // «Luzaide» // Santamaria (id.) «Zienziaren etorkizuna» // X. Leta (id.) «Kafka» // Muniategi (id.) «Herri bat izen zen».

Bizkaieraz: Akesolo (id.) «M. Unamuno» // Barandiaran Ipuinak (Etxenagusia-n) // Patxi Errementari // D. Agirre-id-Kresala // Kirikiño (Abarrak) // M. Zarate «Bizkaia-idazleen Lorategia» //

Gipuzkoeraz: Barandiaran-en Ipuinak (K. Etxenagusia-n) // Orixe (id.) Aramatotik ere igesi // D. Agirre

«Garoa» (id.) // M. Lekuona Geroren Aitzin solasa // L. Villasante (K. Etxenagusia).

Nafar-Lapurtaez: Axular «GERO» // Iones Etxeberri // Charriton (Hegatsez) // Lafitte (id.) «Literaturaz» // Manezaundi // Larreko (Prosistas Navarros) (Eskualdun biozduna Mexicon).

Aurore zaharren arteko: Moguel (K. Etxenagusia) // Fr. Bartolo (id.) // Añibarro (K. Etxenagusia) // J. B. Agirre (id.) // Lardizabal (id.) // G. Arrue (id.) // Mendiburu Kardaberaz (id.) //

Irakurgai horietaz landa, texto bat edo beste geiagoko (joskera eta verboen jabe diren autoren arteko) sar ditek, lehenagotik Batzordeak onarturik.

**Baserriaren alde**  
EUSKAL ETA ERDAL

**Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián**

Banen baneko azikay  
Ongarri ta abonoak  
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira jean etorriak

**TRANSPORTES azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostia'tik egunero:  
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:  
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA  
Telefonak: 450313 eta 459723  
Aptdo. 1381

ERAMAN - EKARRIRAKO AGENCIA

**Transportes A L E**

EUSKAL IRRATSALOK  
ERRI GUZTIARAKO

Urrutizkiak: 424399 - 427726  
Iparvegatua, 8 - DONOSTIA

**ORMAZABAL - DAR DUNIXI**

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK  
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA  
Urrutizkiak:  
Etxekoa 65 19 60  
Landolakoa 65 19 33

URRETXUA  
Urrutizkiak:  
Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7ºgn



lasarte

EUSKAL-ASTEA LASARTEN

Euskaltzaleok, gure poz-aldiak eta gure etsipenak izaten ditugu aldizka. Euskalerrria jaso nai onek, irrika bizian jartzen gaitu zerbait lan egin dutenei entzuteko.

Oraingoan, Lasarte aldetik etorri zaigu poz-giroa. Alde batetik, J. M. Lekuonaren itzaldia, bertsolari eta olerkiei buruz, itzaldi txukuna eskeiñi zigun. Itzegin ezezik, kantatu ere, ain poliki egiten du oiartzuar onek... Atsegiñez entzun genion beraren jardunaldia. Urrengo egunean Murua adiskidea genduan ikastolei buruz gure lanbide onan ditugun egin-bearrak adieraziaz. Jendea geiago genduan egun aretan.

Muruaren itzaldi ondoren, Oñati-bia jaunak saio ikusgarria eskeiñi zigun, bere erritik ekarri zituan aur-taldeekin, bere euskalmetodoa erabiliaz, aurrei gure euskera nola sartzen dien erakusten.

Urrengo eguna AURREN JAIA izan zan. Gure gaztetxoek dakiten eran erria poztuaz. Astea aurrera eramanez, urrengo izlarria Gastesi jauna izan genduan.

Eta orrela joan da astea, azkenengo egunean, igandez jaiburua emanaz asteari.

Guzia, lasartetar euskal idazle baten omenez izan da eratua. Garmendietar Juan, ZELETA izenez ezagunago zaigunaren omenaldia izan da guzia. Bide batez, euskal-giroa zabaldu izan da errian.

Gure lagun au, ez da jakintza sakonez ornitua. Bere lana beti apala izan da; baiña etengabea euskal aldizkari guziétan. Aldi bateko KIRIKINO zanaren eskola sortu zitzaigun aldi batean, eta Bustintzatar Ebaristo jaunak, bere Euskal-Atalaren inguru, errietako idazle taldea loratu zuan bere inguruan. Eskola artako ikasle izan zan gure ZELETA. Eta bein txertatu zioten euskaltzaletasuna, eztu bere bizian itzali.

Zuek, ZERUKO ARGIAREN atal au artzerako, illaren 15garrenean izango da jai nagusia. Erri Meza, dantzari eta kantari eta abar... ZELETAK egun onetan izango du bere itzaldia, Lasarteko erriari ta jai aue-tara etorri diranei, bere esker ona azalduaz.

ZELETAK eztu bere bizitzan onelako goradirik izan. Bere lana apala izan baita beti, eta arrokeri gabea. Orregatik, arrituta ikusi du bere jaioterriak eskeiñi dion gorasarre au ikusiaz.

Ta guk, zorion-agur beroa egin nai diogu, bere bizitzan onela irauñ dualako. Iraun dezala urte askotan gure artean, orrelaxe euskal-idazle zintzo izanaz.

Etzaniz'tar Nemesio.

zestua

Agur Joxe Berri txar batek lausotu du netzat Urriaren. Nere lagun zahar, Joxe Sagarzazu, hil dela jakin dut. Hil ez ezik lurperatu ere bai nik jakiterako.

Joxe, herriaren alde lan eta lan jardun ohi zen gizona genduen. Gizon zintzo, leial, langille, burrukalari, euskaltzale sutsu... Bereak eta bi guda garaian eta guda ondoren ikusia. Euskal Herriaren euskal alde zaintzen eta indartzen ahalegiñak jo zituen gizona Nik neuk ere, aitor dezadan, haren ondoan zaindu, gorde eta bizkortu nuen neure euskaltzaletasuna gaur baiño giro epelagoa eta hillagoa zen garai hartan. Haren ondoan egiñak ditut Zestuako lagunik onenak.

Ez zen edozein, Joxe, Zestuarentzat eta Euskal Herriarentzat. Haren hillela elizkizunean bildu zen jende-pillak balezten du ondoen. Eliza leporaiño, gafiñezka betea, herriarrez, adiskidez eta euskaltzalez. Izan ere, hizlariak aitortu zuenez, Joxe bere gizarteari erantzun bat ematen saiatutako gizona du-gu Hor daude ikastolak, euskal-jaiak, alfabetatze lanak, hots, euskal kulturaren aldeko haren lanak.

Bizierak asko mugatzen gaitu eta agian langillieraren iraultzaz ez zitekean behar bezala jabetu, nahiz eta honek hortarako duen eskubi-dea beroni aitortu.

Azken urte hauetan ez dut Joxekin harremanik izaterik izan leku aldenduak bait geunden, baiña, Joxe, berebizikoak ikusten ari zen gizona zela uste dut. Barrua



Joxe Sagarzazu

korapillo estu eta larri batek zultzen zien gizona zela pentsatzen dut.

Joxek ez zeukan musutruka salgai jartzeko bere euskaltzaletasuna. Orrozkieriak bere sare zuri edo gorrietan galduko ote gaituen beldurrez bizi zela derizkiot.

Bada kapitalismoak sortzen ez duen, baiña ongi erabiltzen duen zerbait: herrikeria, herritasuna, herri-miña. Sentipen hortan oñarritutako jokoa egin du bere diru-sakelak potzoloitzeko eta hortarako behar zituen mugak ezartzeko. Gaur langillieraren herriartetasuna erabili dezake kaltegarri zaizkion mugak kentzeko Europako azoka-ateak zabalik aurki ditzan.

Alaz guziz ere ona da langillieraren herriartetasuna, artetasun hortan nor bere herria biziro aitortzen badu. Baiña diru-zapalketa bakarrik ikusten duen langillea sasi-iraultza egiteko arriskuan dago, herri-zapalketa bakarrik ikusten duena ere erdizkako iraultza egiteko arriskuan dagoen bezala.

Joxek zenbaiten herriartekeria gaitza ikusten zuen eta salatzen. Erdalkeria gaitzesten zuen, zuria eta gorria, biak. Batak eta besteak herriari egiten dioten Joxek gure-gandik beste bide batzuk hartuak zeuzkala uste dut euskal alorrean. Baiña ez berekoieriaz eta itxikeriaz, noski. Joxek maite zuen aurrerapena, elkarrizketa, irekitasuna, berdintasuna eta zuzena. Azpian eta izkutuan dagoen erdalkeriak ikaratzen zuen eta egiaz euskaldun den guztia ikaratu behar du Baiña bada beste bideetan ere erdalkeria ajerik gabeko jendea. Iñozoa ez da jendea.

Dena den, Joxe guretzat agiazko gizon euskalduna zen. Gizon trebe eta langillea. Herri lanean ixpillutzat har ditekeen gizona. Hitza eta pitza besterik ez darion jendea isilarazteko neurriko gizona Herriaren alde urtu dan gizona.

Agur Joxe Nahi duenak nahi duena esan dezala baiña ni eskerturik naukazu eta eredutzat edukiko zaitut langilletasunean. Eta sozialista usteko asko baiño sozialistagotzat zadukat

M. ATXAGA

irura

FESTAK GORA-FESTAK BERA

San Migel aurretik galdera auek entzun oi ziran gure errian: Aurtent festarik bai ote? Nilakoak? Pakean? Nork eratuta? ezka orrekin bizi izan gera. Orain festak bukatuta gero galdera oieri erantzuteko moduan gera. Ona erantzuna: festak izan dira, ederrak, euskal kutsukok, biotza eragiteko moduko paketsuak, Jainkoari esker.

San Migel egunean, Errepetitziokoan, Tolosako Leidor abeslari taldeak Perossiren Meza in RE abestu zigun, berat dakien bezela; lutzetxo joan zan, bost ordu laurden baiño geiago Ala erez ez giñan aspertu Ondoren, zimitorioan, kantaldi polit bat entzun genion.

Iru egunetan pelota partiduak —sharez— izan ziran, oso burrukatuk, maila guztitakoak: mutiko,

gaztetxo, gazte sasokoan artean. Kontrarioak Zuberotik etorriak genituen; jokaldi bizi eta politik izan ziran eta bai batzuk eta bai beste txalo asko artu zuen. Aruntzko pilotariekin batera etorriak ziran Bordeleko "Sud-Oest egunerokoan" "BOTA" pilota kritikolari ospetsua eta Donapaulen dagoen eskola nagusiko apaiz zuzendaria. Onek zuberu euskalkiaz eman zion Meza erriari, ta aiek eta gu anaiak, ama baten semeak giñala jabetu giñan.

Lasarte eta Agirre bertsolariak ere beren bertso erroz eta piperdunenkin gozatu bat eman ziguten.

Geien-geien jendearen biotza ikutu eta pil-pil jarri zuana Tolosako UDABERRI taldea izan zan; irurogei lagunetik gora izango ziran danak eta mota guztiko dantzak dantzatu zizkiguten... eta nola?

Neska mutillek: Iturengo sokadantza, Iribasko ingurutxoak, eta Imotzko esku-dantza dantzatu zituzten.

Neska txikiak: Kontrapas, Sagardantza, Uztaidantza eta Museta. Mutikoak: Saint Petrik eta Jorraidantza.

Eta bukaera emateko, mutillek: Larrañ-dantza eta Neskek: Jaurrietako dantza.

Zeiñek baiño obeto: neska txikiak pausoa ondo markatuaz; mutikoak bizitasunez eta egitasunez batez ere zaagieramaillek; neskak emeki eta mutillak gizonki eta denak dantza bakoitzari zegokion itzal eta errespetuaz, zertan ari ziran ondo jabetuta.

Soñulariak: txistulari, albokari, auspojtzalle, dunbalari ta atalabarietz zer esan? Goreneko mailla jo zutela. Eta denak, bai dantzariak, antziñako euskal erara jantziak.

Eta goizero kalejira eta gauero plaza, soñu alaiekira piztuazten zituan txistulari irukotea ta "Los Zafiros" musikeroak aipatu gabe ezin ba utzi. Auek ere beren egitekoa ondo eta zintzo bete zutela aitortu bear.

Festa eratzailleei, zorionak. Olakofestak bear dira errian.

Urrengo urtean Batasuna gure artean erabatekoa izan dedilla.

YODABE

galdakano

MENDIZALE GORA-BERAK

Iñoiz bez obeto esanda mendiko gora-berak, urren azalduko duguzan eginkizunak gaitik baiño.

Beste noiz baten be esan oi-dogu, Ganguren mendigoizale taldea ez-dagola geldirik, ezba kirol ori ezta geldi egotekoa izan-be ta!

baiña ezta eurok geldi egotea bakarrik, besterik be geldi egoterik eztabela nai esan litzake euren gertakizunak ikusi-ezketiko. Urrilla onen 29'garrenako gertu dabe mendirik-mendi tarteko Iraupen Ibil-tza Neurtu bat, Euskalerrri'ko Mendizale Batza'ren babezdiran mendizale bazkunan, auda; Baskonia, Ede-sa, Osea ta Padura tardean laguntzaz, bederatzi edo geyagokorduko ibiltza neurtua, Galdakano'ko erritik guztiz Idazlan onekin batera ikusten dan marraskian ikusi litzakenez, ezdu goi-bera andirik ibiltza orrek, baiña, bai nekerik luzatxua izango dalako bearbada bat baike geyagontzat.


Ibilbidea, polito da nai-talderdi batzuk piñu baltzaz pizkat illunduak ba'dagoz be, aitzarte, belarbidetza, azu-bide ta era guztietako ibiluneak igaro bearko dabalako. Ara emen ibilbide ori: Urteera, Galdakano'n Ganguren'en batzartokitik goixeko zazpi-rean asita, gizonzko edo emakumezko irukoteatan eta, urren iroiren (minuto) baten bitartean azkenengoak urten arte, jakiña, Bazabal, Apario'ko mendilepoa, Urkizu (Egiztapen da amarretakoa), Urtemondo (Egizt.), Kañometa, Belatxieta, Amorebieta-Larrea (Egizt. eta baskaria), Arburu, Bizkargi (Egizt.), Goikoelexia, Larra-betzu (Egizt.), Legiña-goikoa, Uraburu, Elaxalde (Galdakano) eta urtendako tikira sarraiera. Ibilaldi ederra oiñak arin, soñia ondo trebetu ta bularra garbi dabenatzat.

Aurreko egunean bertoratu nai daben mendizaleantzat, ibltza neurtu oretan alde artutzeko; izango da non lo-egin, erri ontako mendigoialean etxeatan. Beraz, ez-daitela mendizale kementsu bat bertora etorri barik geratu, lo non egingo daben bildurrez, ziur eusko anai baten oge apatzen baten egingaaf izango dau-ta.

ZIZA LEYAKETA:

Urrilla onen leenengo idandean Tolosa'n ospatuzan ziza leyaketan izan ziran erri'ontako «Peña Santa Cruz» ekoak, euren perretxiko molto aderrak ondo lerokatuta ebesala, bost-eun da iru muetakoak, baiña, ori ta guzti be lau'garren saria «Bakarrik» lortu eben, edo emon eutsien, eta lenengoa pozoin' dūn mueta geien aurkeztu ebesaloki. Ori ta guzti be ez-ira atsegiñez etorri gure errian adizkideok, sari obeak uste ebesaloko. Tira mutillak, ez asarratu Tolosa'ko «Zuzuntzan» enperantzan ez zan zuzutzagaberik izango-ta, Jarraitu orain artean legez kementzu ta urrengoan jaretsiko duzubez merezi dozubesan sari obeak!


Basa-jaun



ZUMARRAGA



LASARTE



TOLOSA

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440



Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Berriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar Olazaguiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Berriain.

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboia bakarra Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

JABON LAGARTO!



**ataun**

URRIAK 6, OSTIRALA

Berriz ere ikusi degu Ataun herria, ikaskintza arazoa bere gain, sakon-bideetan erabiltzen. Bada izan ere gure herrian, moja txuri aiek aldendu ziren ezker-oz-au fetxa xola da bakarrigai oni eldu beharra ta... gai au tajutu beharra. Izan ere orduan eta geroztik, ez degu inolaz ere, geu kezkatu ezik, ikaskintza abelera jator bat nabaitzen. Garaiko usoak bezela, denak igarora dira, herri oni, berak bear duan kultura bide bat erantsi gabe. Zatika batzuek eta axalki besteak egin zuten emen beren denboraldia.

Neskatxaren ikastaro xoilla batetik (mojarena) eta pedagogia eze-rezkoa bestetik (gaiñontzeko ikastetxeak) izandu ditugu gure herriko ikaskintzaren berezitasunak, Gabillene sortu dan arte.

Zorioneko izan zaigu bada, aurretik erabili degun giro hori, guziok esnatu eta kezkatzearen. Arrezkero jakin degu, gurasoak eta herria dirrela txoko bakoitzeko ikasketaren responsable benetakoak, eta ez axalekoak orain arte bezela.

Oso pozgarria benetan, Urriaren 6ko billera Ataunen. Herri dena ez-bazan ere, herriko kezkatu denak, guraso ta gazte, inguratu ziran gure herriko ikasketaren egoera jakin nahiaz.

Ederki azalduak bere zati gehienak ta... prestutasun bikaina nabaiturik irten genduen, billera garrantzitsu hortatik.

Bagera nor gure herriko ikaskintza zuzentze kontuan ta aurrera dagigin lankide hortan; guk egia guretzako eta gure ondorengoentzako izango dala sinisturik.

Ekonomi aldetik berriz ez degu beste munduko pixurik, lehen bezalatsu edo erraxago derizkiote gehienek.

Guraso eta gazteok, laguntza behar du orain Gabilleneko ikastetxeak; lagundu dizaiogun bada, asmo bikain eta herriko hauxe, aizeak eraman ez dizaiogun.

AZAROKO JAIK

Jakin det, aurtengo Azaroko jaietan, Umetxoentzat redakzio edo idazte lehiaketa ipintzeko direla. Euskerazko ipui eta beste lan batzuk gai izanik.

Ongarri benetan gure herriko gaztetxoentzat lankide hauxe; Patronatoko irakasleek ere ondo esker-tuko liguketela uste dut asmo hau, ta... berari ere laguntza eskatu dizaiogun eratze onetan.

LAUZI-ERREKAKO ZUBIA

Zubi ederra degula entzuten diet denari ballara honetara egiten ari diren berri hau; ta... nik entzutea ere bai nahi, zubi ederra izanagatik, inguruak oso itsusi gelditzen zaizkiola delako zubi honi. SUTEGI aurreko borda, expropiazioz edo... bere nagusia nor da?

IRRINTZ!

**iziar deba**

Il onen bederetzian il zaigu Itziarren bertako sakristau izana Jose Agirregabiria (g. b.) Berrogeita zortzi urtetan zerbitzari jatorra izan da Ama Birjinen elizan eta augatik inguruko eta naiz urrutik jendeen ezaguna Ongo artzen zekian zeruko Ama-gana eltzen ziranak Beronek artua izan dedilla zerura bidean.

Bere illetara jende asko inguratu zan, batez ere eliza ontako apaiz izanak. Auetatik zortzik Meza konzelebratua eman zuten Joxe zana-ren izenean, guzien gogoko izan bait zan sakristatzako bere eginbe-rretan. Zuk ere irakurle, ezaguna izango zendun beste asko eta askok bezela eta lagun eiozu zure otoitzaz.

Ezkondu zaigu ill onen amaikan Mari Karmen Arostegi, Migel Angel Landarekin Bikote atsegiña erritarren artean, guzien lagun, guzien adiskide.

Alako aita-amen alaba da-ta, euskeraren alde laguntza zerbait bear zanean, Mari Karmen ez da atzera begira gelditu izan. Bai ikastolari eta ikastolakoel laguntzen ere.

Nere aldetik, senar-emazte bagikook, jarrai orain arte izan zeraten bezela. Jaunak seme-alabarik ematen badizue (ta onela izan dedilla) azi itzatzue Euskaldun ta Fededun zeuek aziak izan zeraten bezela oiñetik oiñera. Ez arren eten zuen gana osorik eldu dan katea. Kristau eta euskaldun bezela, egotzi zaiozue kate orri beste mailla bat zuen ondoren goak zuengandik ikasita beste orrenbeste egin dezaten.

Zorionak  
TENE MUJIK

**ondarrabia**

HERRIKO JAIK DIRELA ETA

Beste jai eta jaialdien artean izan ziren gure herriko jaietan kultura bidean egindako batzuek.

Hoietatik berexienak hartuaz, korro Ametsak bi hizkuntzatan emandako abesti saioa, Donostiako Kresala taldearen dantza saioa, Anexa ballet taldearen, Skola Kantorune-na eta Euskal Herriko kanta zahar eta berriekin emandakoa, aipatu bahar genituzke.

Benetan pozgarria jendeak emandako erantzuna, batez ere Euskal Herriko kantakin egindako saioari. Euriak ez zuen jendea asko ikaratu. Aterki pean ixilik entzunak izan ziren abestiak. Mila eta bostehun gizon andre, gazte eta ez hain gazte horrela entzuteak zerbait esan nahi du.

Baina ez gaitzen numerotan gelditu, eta gutxiago oraindik haundikeritan gozatu. Ez dugu hori nahi.

Nik galdera bat egingo nuke: Horrekin nahikoa ahal dugu gure nortasuna agertu eta gure herriaren izatea salbatzeko? Inolaz ere ez dut uste.

Zergatik ez genduen programan azalduko abeslari guziak entzute-rik izan? Betikoa, Goikoen trabak. Ala ere Xüberoako abeslari ta dantzari taldea, Pantxo ta Peio, Etxamendi ta Larralde, E. Labegeri ta Zabala entzun ahal izan genduen.

Badugu egin behar ugari gure egoera latz honetatik atera nahi badugu.

Saiatu ba eta aurrera!

AMUTEKO JAIK

Ondarrabiako barrio edo hauzo hontan ere berriro ospatu dira bertako jaiak. Bai ondo moldatu ere.

Bertsolari saio ederra entzuteko aukera izan genduen. Herri Meza ere oso ederra jende askok parte hartuaz, Bizkaiko Oskorri bikoteak emandako abesti saioan, bere abesti saioan, beren abestien esan nahia ondo agertu izan zuten; baita agertu ere.

RADARRA ONDARRABIAGO ITSAS ONTZIETAN

Orain dela denbora gutxi berri bat ikasi nuen. «Gure herriko itsas ontzi batzuek radarra bai omen dute». Bai sinestu ta nere begiz ikusi ere. Lañotan debiltzanean, begiz ezer ez ikusi arren, beste ontziak non dauden jakiten dute, baita ere kaiera zuzen zuzen sartu aparato horren bitartez.

Gauza ezaguna genduen bainan ez gure herriko arrantzaile mailan. Benetan ez du urteekin ikusgarritasunik galdu eta goratzea merezi duen tresna da arrantzalientzat ain probetxugarri bait da.

Baina hau dela etap gauza bat bururatu zait: Ez ahal zen askoz ikusgarriagoa izango gure pentsamentuak ikusteko balio dun radar bat? edo lañotan gabiltzanean gure helburua iritxi arren, bidea erakuntsiko luken aparato bat?

Nere iduriz olako zerbait behar izango dugu hemen, bestela... nola?

Etorriko dituk motel, aurrerapen hoiak ere. Ez apuratu!

**pasai donibane**

Gure Euskal Herri hontan gauza xebebreak gertatzen zaizkigu askotan. Hauetako bat, gure herriko hiru mendizaleri gertatua eta berroiek neroni kontatua.

Duela bi hilabete, Iruineko «Plaza del Castillo-ko» bar batean sartu omen ziren, Nafarroako mendi batetik zetorelarik. «Ekatzu hiru

garagardo» eskatu zioten bar hortako nagusiari. Eta honek, ingelesez «yes» erantzun, ingelesez ari zirelakoan. Hirurak harritu-ta gelditu ziren, Euskal-Herrian ala Inglaterran ote zeuden pentsatuaz. Edan omen zuten garagardo eta gure mendizaleak ingelesez: «Zenbat da?». Nagusiak: «30 ptas.». Hogeiduroko bat eman eta kanbioak itur-trerakoan ala dio nagusiak: «Thank you» (Eskerrikasko). Gazteak agurtzerakoan jokoak jarraituaz «by, by» erantzunaz erten ziren.

Aurreki Kutxa Munizipaletik, herriko ikastolak, 10.000 peztako diru-laguntza jaso du; A. K. Probintzialatik berriz, 5.000 peza. «Zer dela-eta, batek bestea baino doblea eman?», galdetu genion ikastolako arduradun edo erresponsable bati. «Auskalo, erantzun zidan, hau nagusen planifikazioaren asmo izakutak dituk». Dena dela, gure eskerrona bijoakie eta et datorren urtean ugaltzen duten diru-laguntza hau!

Egun, denok dakigunez, ikastolaren korapilo haundienetako bat, irakasleen edo profesoreen eza izugarria da. Eta urtetik urtera, ikasleak ugalduz djoazkigunez, arazo hau haunditzen eta zabaltzen aren zaigu.

Egia borobila dela adierazteko, auzoko ikastola batena gertatu dena, aigi eta garbi ikus dezakegu arazo larri hau. Auzoko ikastola hontako arduradunek edo erresponsableek, ezin izan dute inondik inora, irakasle tituludun batberaere arkitu. Harat-honat ibiliak izan dira atea joka. Alferrik! Azkenean, gure herriko ikastolara jo zuten laguntza esgatuaz; eta jakina, gure ikastolako gizonak baiezkoa eman zieten une gorri hau ikusiaz. Ikastaro hontan beraz, ikastola hontako 14 neska-mutiko ikasten ari dira gure ikastolan.

Arazo edo problema konkretu hau soluzionatu dugu; baina, gero-rako zer? Bailara mailan aztertze-ko edo analizatzeko arazoadela, deriztat. Estudiatzen ari diren gazte- txoak zenbat diren jakin behar genduke aurretik eta gero hauen artean, hitzaldi batzuen bidez zirika-tu behar genituzke irakasleen korapilo hau agertuaz.

Hau dena ikusiaz, ez gaitzen inolaz ere bildur, eta burua makurtuaz gurekiko esan: «Hemen ez zegok zer egirik». Horrela pentsatzea kobardekeria bai litzake! Hel dizaiogun zezenari adarretatik! Lehen izan diren buruhauste gordinak aurrera atera baditugu, ez ote ditugu askatuko orain sortzen ari zaizkigun korapilo hauek? Bai horixe! Denok hauxe behar genuke egin: Burrukatu, jo-ta-ke lanari lot eta SEKULAN burua makurtu EZ, hontan bai dago gure salbaidia. Iñalurretak

**bergara**

JAUREGIAK GORDE NUNGOAK?

Oñatiko jaietan irakurri zenduen FE. idatzitako zentzu aundiko artikulua

Ondo dio Gauza zaarrak eta gure gureak gorde, zaindu eta maitatu bear ditugu, batez ere alako gizon trebe eta ospetsua baten jaiotetxea.

Gorde, zaindu, maitatu!  
Ori, nork?

Bergara alde ontan jauregi geienak utsik daude eta auetatik batzuek beera datoz

Aurreko gure atal ontan esaten genduen OIaso Torre beera datorrela; Santa Anako jauregiak egunen batez mutiko talderen bat azpian artuko du, eta beste izenik ez noa jartzera.

Etxe oiek Bergarako tokirik egokienetan daude; etxe oiek, alako lorategi, baratze edo nik ez dakit zeri erantsita dauden, geienak sarsiz ornituak; etxe oiek izugarriko lur sailak daukate eta Bergarako erriak lur sail oiek bearezkoak ditu; etxe oiek dauden tokian zutik daudelako lur oiek ere beroei josiak daude «in secula seculorum»

Zaar edo umeentzat ibil tokia, ambulatorio berria —oraingo onek Ambrosioren karabinaren antza artzen diot—, Korreo eta Telegrafo beria, ta zenbat eta ainbat gauza, eriak bear bearezkoak dituanak, egunen baten egingo dira, etxe zaar oiek jausten diranean edo onen nagusiak diru premium arkitzen diranean.

Oraindik ez dira urte asko ondo zainduta ezagutzen genituala ta egia esan begientzat atsegingarri bat zan, bizi ziran gure jauregi zaarrak bere biztanle zaar edo gazteez esku zabal edo dollor erri-ri bitzita ematen ziotenak edo onen bizkarretik bizi ziranak.

Gureak izango balira aspaldi kenduko ziguten, izan ere bekoari errex egiten saio ogeitaamaika eskutik; onela gertatu da orain arte eta emendik aurrera era larri ibilli.

Gure jauregiak illobiak dira eta Euskalherri guzia illobi biurtu bear aldegu? Bere piñudi eta sastrakaz beterik?

Gure jauregiak gorde Nolan?  
ALFABETATZE-SAIOA

Euskaltzaindiaren babespean Iri-goien Patronatuaren laguntzaleek eratuta, URRIAREN 17, garrenean asiko da Astearte eta ostiraleko arratsaldeko 8 eta erdietan, Maestria-Eskolan.

EUSKERAZO-IKASALDIAK  
Egun eta ordu beretan, Maestria-Eskolan

Izen-ematea, Amenabar eta Lonbide dendetan

Ia ba saiatzen geran denok gure euskera politagoa egiten; neskatxa batek esaten zidan berari etziola ajola ika deitza euskera garbian, baiñan emengo mutillak esaten zioten bezela latza iduritzen zitzaiola.

I, neska. Eskolara juango gaitun, ala zer ein bion?


Aizan, i, neskatxa. Eskolara joango al'gaitun, edo, zer egin bear den...?

Alderik ba'aldago?  
ETORRI IKASTOLARA.  
Geuretzat ikasiko degu.

MENDIKOI

**FAGOR**  
edaria  
epela dagola?  
**FAGOR** ' ek  
oztuko  
du bereala

**LA CASA DEL CAFE**  
Juan Irujo  
San Marzial, 19 - Urrut. 413801  
Donostia



DEBA



PASAI DONIBANE



BERGARA



«EUSKERA HIRE LAGUNA» LEHEN LIBURUA,  
PATXI ALTUNAK EGIN ZUENA,

berriz argitaratuko da. Liburu eder hau, zerbait bederen,  
osatu eta hobetu egingo da. Lehenbiziko hartan ez be-  
zala oraingo honetan euskera batuan argitaratuko da.  
Erosi nahiko lukeenak eska beza: **Bilbao. Apdo. 72.**

## ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR  
M. Gorostiza

EIBAR  
Angera  
Markina  
Iriondo  
Eguren  
Gisasola  
Barela  
Alday  
Aranburu  
Estanko, 11  
Isasi  
Simon  
Amana  
Uraiz  
Urizer  
Siglo XX

Ur-neurlariak: TAVIRA  
DELAUNET

CONEX-SANBRA: Ur-bide era berria

Txaramillak

**iberconta**

IBERICA DE CONTADORES Y APARATOS DE PRECISION, S. A.

Bilbon: Henao, 23

Donostian: Aldamar, 14

Iruñen: P. Calatayud, 18

Madriilen: Gral. Sanjurjo, 18

BAR

**AURRERA**

OPORRALDIA IGARO ETA GERO, ILLAREN 27AN  
IREKIKO DUGU BERRIRO

Urbietan kaleko 12'an Urrut.: 412572-411528  
— DONOSTIAN —

**ATEA OPARIAK**

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2  
Urrutizkiña: 425700


DONOSTIA



**arístegui hermanos**

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR,  
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459  
DONOSTIA




**ECHABE**

ETXABEREN  
Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 84 10 78  
84 11 24

ZARAUTZ



BOUTIQUE

**nekane**

Gazteen, neska - mutilen, Boutique

1 Agosto, 5

Urrutizkiña: 41 78 153

DONOSTIA

**BLAS DE LEZO**

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK  
ETA EDARI GUZTITATIK

Bias de Lezo Kalea, 6  
Urrutizkiña: 41 20 65

DONOSTIA

**“Urria” MAUKA OBEA!!!**

30 egun Logelarakoak, tresilloak, eser-etzan-lekuak  
molde-egiturak etengabe eraberritzen

Eraman eta ezarri debalde Probintzi barruan

DONOSTIAN

IRUNEN

Moraza 3 eta 14nean

San Marzial 12 nean

**Amuebladora Comercial HISPANIA**

Probintzi osoaren zerbitzuan

MUEBLES

**URRETAVIZCAYA**

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

**MITXELENA**

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)

Avda. de Francia, 1

— IRUN —



**DEPURACION  
DE AGUAS  
S. A.**

Ur lanetan eta zereginetan berezia  
edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko  
zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01  
Gordoniz, 44

BILBAO



# ELIZAREN BERRI

# TALDE TXIKIAK BAIZIK EZ KRISTAU?

30.000 EMAGALDU FRANTZIAN

Emagaldutza dela-eta, berealdikoa sortu da azken aldi honetan Lyon-en Arazo hori gora-behera, honetaz jabetu ahal izan da mundu osoa: Frantzia 30 milaren bat emakume bizi dela emagaldutan.

Fenomenu hori hobekien ezagutzen duteneratik, Tolvas apaiza da, Mouvement du Nid delakoaren sortzailea; Mugimendu horrek, askori lagundu dio emagaldutzatik, eta giza-berritzen.


«Nolaz azaldu — galdegiten zaio delako apaiz horri —, hainbat lege eman, eta halere izurri lotsagarri hori beti berritzen doalako?» «Gauza ximplea —erantzuten du—: legea egitea delako gauzarik errazena; premia-koena, biziberritzen laguntzeko zenbait bide urratzea izaki, halabaina. Horixe egin dute erresuma komunistek, prophetoria direlakoak sortuz».

Zein bide litzake horretarako egokiena? Saliege kardenalak esaten zuena: «Elizak emakumearen jasokuntzarako lan egin behar du: zibilizazio bat handioga ala kaxkarragoa izatea, herriaren irizpidean emakumeari ematen zaion tokia baita dago».

Ez da, noski, kriterio txarra. Orotarako pertsonaren jasokuntza; bere buruaren jabe dadila.

GAUR AITA SAINDUA  
HAUTATU BEHAR BALITZ...  
NORK HAUTATUA

Joan den hilean, VI Paulok 75 urte bete ditu. Gotzaiei eskatua, hots, 75 urtetara iristean dimisioa be-



Emagaldutza poliziagandik iheska Lyon-en

ren gogoz eman dezatelakoa, Aita Sainduak bere buruari ezarri behar balio, Aita Saindu berri bat aukeratu beharrean izanen litzake Eliza. Badakigu, aukeratze hori kardenalek egiten dutela. Kontutan hartu behar da, arazo horri buruz, erabaki hau hartu zuela VI Paulok: 80 urtez gero, kardenal batek ez dadukala parte hartzerik aukeratze horretan. Hori dela-eta, hipotesiazko oraingo aukeratzean, 88 kardenalek hartuko luke parte; beste 28 zaharregiak izaki: 80 urtez gorakoak.

Baina, garrantziakoa-edo, kardenal horiek nongoak diren jakitea da. Iku ondorengo kuadro honetan, gonbaraketa:

Aukeratzea:	Europa	Ipar Amerika	Hego Amerika	Erdi Sortalde	Ozeania	Asia	Afrika
XII Pio (1939-III-)	55 (35 italiatar)	4	2	1	—	—	—
XXIII Jon (1958-X-28)	35 (18 italiatar)	5	9	2	1	2	1 (zuria)
VI Paulo (1963-VI-21)	55 (29 italiatar)	1	12	2	1	4	1 (beltza)
Kardenal hautatzaileak (1972-IX-15)	47 (23 italiatar)	12	11	2	2	8	6 (4 beltz)

Aldaketa handiena, XII Pion egin zuen; bere aitasaindualdian, europar ez ziren kardenalak, % 11 tik, % 36ra igo ziren; italiarrak %56tik, % 33ra jaitsi.

VI Paulorekin, italiarrak % 27ra jaitsi dira.

Horrela, hau ageri da hautabide honekin argi eta garbi: Aita Saindua Eromakiko gotzai baino areago, munduko eliztar gobernu baten buru bezala hartzen dela; artzain baino areago, beraz, kargudun bat bezala. Eta, jakina, hor teologia dago jokuan, eta Kristoren ebanjelioa. Izan ere, Aita Sainduak, Eliza osoari buruz duen gain, eta lehen esanenen nuke, herri batetako, Eliza partikular batetako gotzain behar du izan; bestela, Lubac aitak gaitzesen duena eta honela marrazten duena gertatu da: «goi-gotzai antzeko zerbait izan, inon errotu gabea, gaurko munduko Estatu baten antzera taxaturiko Eliza baten agintari edo lehendakari bezala».

Agian, puntu hauxe litzake gaurko Elizaren erakundearen nabari dugun akatsik handienetakoa: Estatuak espezializatutako aitortu bere burua, baina Estadu bait litzan jokatatu. arl Barth-ek esanzen lukeenaren arabera: Jaikoaren eraginean ez, Jainkoaren errebelazioan ez, baina giza-indarretan fidatzea.

EKONOMIA  
ETA ZUENBIDEA

Ohiturik gaude «per capita errenta» halakoa eta halakoa dela, hainbat eta hainbat hazi del entzuzera. Esan ditek, asko eta askotan, hitzjoku bat gertatzen dela hori

guztia. zan ere, ezer gutxi aurreratu dut nik, biren edo hiruren arteko ondasunak ehun halako egin, eta ugaltze guztiarekin nere «laguna» geratzen bada. Horrelako zerbait adierazten du «per capita errenta» delako horrek askotan.

Horixe bera adierazi dute, beste modu batetan, oraindik orain Kanadako gotzaiak: «Ez gaitzen eror, ekonomia ugaltasuna azkenean guztien onerako gertatzen dela dioten teoriaren saretan. «Errenta nazionala oosa» hazi arren, langabeziaren fenomenua egiazko izurritea da, ia mundu guztian, eta aberats-behartsuen arteko leizea handituz doa».

Beraz, «per capita errenta» baino areago, batzuren eta besteren arteko banakuntza-modua axola zaigu, eta hori ez zaigu hain aisa adierazten.

Hori dela-eta, gure arteko arazo batb datorkit burura nere inguruan askotan aipatzen entzun dudana, eta hauxe da: denok ezagutzen dugu Langile Kutxa edo Kaja Laborala. Jakin nahi litzakeena, zein proportziotan jasotzen duen bailara bakoitzetik, zein proportziotan ezartzen duen bailara bakoitzean. Eta batez ere, zelako lanpostuak sortzen dituen, non, norentzat. Esate batetarako, Goierriaren galdegiten dena d: zenbat jasotzen du Kaja Laboralak Goierri bailaran? Zenbat ezartzen du bailara berena?

Zuzentasuna dago hor jokuan; batez ere, ezaguna bait da Goierriko lanpostu kualifikatuen falta eta eskasia.

Erantzunen ote digute? Dudarik ez, ekonomista onak izanen dituztela zuzendaritzan; ez litzake gaizki izanen, humanista batzuk ere izan litzaten.

ANGOULEMA-N (FRANTZIAN)  
NOLAKO GOTZAINA GURA DUTEN

Gotzain-laguna nolakoa nahi luketen galdeginez, inkesta bat egin da aipaturiko diozesia horretan. Hona nolakoa nahi luketen gotzain-lagun-berria:

- gaztea, osasuntsua, eskualde bereko semea;
- artzantza-experientzia sakona duena;
- bere zerbitzuzintzan, administradore ez, baina misiolari litzakeena;
- bateratzailea;
- eragile eta elkartzalea;
- ikuspen argikoa, eta berori azaltzen dakiena;
- apaizekin hitzegiten dakiena; bakoitzarekin egoteko gauza litzakeena; orobat laikoekin ere;
- arazo-sail guztitan ekipoak egiten dakiena; ez dezala inongo lan-sailik bakar baten esku utzi;
- optimista izan dadila;
- bi gotzainak ongi konpon ditezela.

ATZOKO —ALA ERANEGUNGO?—  
APAIZAK ZARAGOZAN

Irailaren 26 an, Pilarikaren oinetan bildu zen, Kontzilioak taxaturiko arnas-moldetan, gure gaurko hibaletan arraina bezala, bizi ezin den apaiz saila: sotanaduna, sekularizazioak kutsatu ez duena.

Hermanidad Sacerdotal Española San Antonio Maria Claret y San Juan de Avila delakoak antolatutako otoitz eta azterketa saioa zen: zerbait egin beharra zegoen, bai eliztar ohitura eta pentasabide berrien aurka, bai iraultzabidearen aurka, bai dotrinari buruzko zalantza eta ukatzeen aurka, bai liturgiako anarkiaren aurka.

Apaz mugimendu honek Espainia guztian 1.700nen bat batzarkide bide ditu ofizialki, gehiago agian bihotzez.

Burutzat Oltra aita dute, frantziskotarra.

Jerarkiarekiko, mugimendu honen harremnak aski gozoak izan ziren Gotzai Batzarraren zuzendari Quiroga eta Morcillo izan zirenean; gerora, aski pozoitu dira; batez ere, 1971ko iraileko Asambllea Conjunta zelakoa gertatuaz gero. Asambllea horrek, izan ere, askatasun, ekumenismo, demokrazia eta tankera horretako beste zenbait ideia mahai gaineratu bait zuen.

Geroxeago, Apezkeriaren Erromako onregazionaren ageri sonaturarekin begiak zerbait argitzen ahal zitzaizkien aipaturiko Mugimenduko; baina, denbora gutxirako.

Zaragozako batzarrak beste ekinaldi bat gertatu behar zuen, ageri haren bide beretik, zuzendarien asmatan; baina ...

«enbait azpi-jokuk —Nuntzioarenak eta Erromarenak?—, dena lurrera bota zuen. Hitz emanik zegoen gotzai eta kardenal asko ez zen etorri Zaragozara. Doi doi, bi gotzai izan ziren: misioetan bizi iznak eta Espainiara beren bizitzaldi hondarra igerotzera etorriak. Nonbait bi horien izenik ez egon Batikanoaren fitxeroan, eta inor ez oroitzen horiei Zaragozara ez joateko esateaz beste gotzaiei bzela. Ez Guerra Campos, ez Wright, ez Seper, ez Rossi, ez Danielou, ez Siri, ez... Horrenbeste atsekaberen artean, ez zuten umorerik gldu; hizlariek

(II)

Kristau izatea Nori dagokio? Gizon denei? Talde txiki bati? Kristorekin bat egiñikako Kristau talde txiki oni esker, gizatalde aundiak salbatuko ote dira? Zenbat galdera. Zein zaillak erantzunak.

Ebanjelioa irakurriz, badirudi talde txikiak egiña dela Kristoren erlijioa.

KRISTOREN JARRAITZALLE. Jainkoaren Erreinuaren bere burua kerizatu bear du benetako kristau izan nai duanak; Jainkoaren Erreinuera zuzendu bere bizitza eta bere zoriona Erreinu orretan jarri Jainko Erreinu nork beretzat artzea, Kristori jarraitzea baizik ez da; bere mandatu-mezua onartu eta gure bizitzak Kristok nai bezela zuzentzea. «Saldu guzia, bertsuei, zabaldu eta jarrai zaidazu», zion Kristok gazte bati Saldu... zabaldu... jarrai... Itz gutxitan, zenbat gauza. Guzia Kristoren mende jarri. Endonork egin ote dezake?

Egitazko kristauak oso-osorik Kristorena izan bear du. «Bere aitaamak Ni baino geiago maite dituan, neretzako adina ez da» dio Kristok. Kristo gabeko bizitzak zentzurik eta ezeren esan nairik ez du: Kristoren jarraitzaileak uko eta dena sakrifikatu bear du: «Utz ildakoei ildakoei illobiratzeko». Godeari elduta, atzera begiratzen duena neretzako adina ez da». Kristori jarraitzea, bere irudiko izatea da; Kristorekin gurutzeko lotuta bizitzea eta Kristoren bizitza neketsu eta mingarrian parte artzea. Zaitzete nere antzeko, ni Kristoren bezela, dio Pablok. Errialde osoari au guzia eskatu ote ditzakegu?

BETI JARRAITU. Egun guziz eta eten gabe Kristoren ondoren joan. «Nere jarraitzaile izan nai duenak ar beza egun guziz bere gurutzeko eta jarrai bezait. Il arte Kristoren gurutze aundia bizkar gainean. Gizatalde osoarentzat, ez ote da pisu aundiegia Kristoren gurutzeko?

ITXURAK EZ DU BALIO. «Zorrigaitz zuei, fariseotarrak, kanpotik garbitzen dituzue edan ontziak; barrutik ordea zikin daude». «Illobi zuriak zerate, kanpotik guztiz polittak, baiña barrutik nazkagarriak». Fariseotarren Liturji, limosna, barau

eta opariak ez ditu Kristok onartzen, auek guziak beren bizitzarekin bat ez datozelako. Ni barnean naizela, gaur eguneko kristau askokena. Bai ala ez?

ZORIONAK AGINTZEN DIGUN MOLDERA TAJUTU KRSTAU BIZITZAK. «Zorionekoak apalak, otzainak». Zorionekoak Justiziaren gose-egari diranak». Zapalduen alde jokatzen dutenak, lurreko gose eta egarriak kentzen saiatzen diranak; oiñazpiratutako erriaren askatasuna iristeko borroka bizia dagitenak. Nun ditugu orlako kristauak? Zenbat dira Eliza barnean? Esijentzi auek, norentzat dira? Bete ezinezkoak ote dira eta amets uts jende-talde aundiari ezartzeko? Galderak eta galderak. Erantzuna gaitza.

Kristau izatean mailla asko dira noski. Kristoren jarraitzaile batzuk besteak baino Kristoren antz-irudi aundiagoa dutenak izango dira. Kristori jarraitu, bide erdiñ askotan jausiko gera. Apostoluek ere ez zioten beti zuzen Kristori jarraitu. Ez da iñor, Kristo sekulan arrapatuko duenik zintotasunean, santutasunean eta maitasunean. Kristoren ontasunak ez mugarik; bere mugaraño gu sekulan ezin irixi.

Baiña benetako kristau bizitza eraman nai dutenek, Kristoren Erreinuera begira beti bizi bear dute; Kristoren antzeko izaten betialegin; gurutzeraño gurutzarekin beti Kristori jarrai. Bidean erori esker, altxa beriro eta aurrera beti. Ea askotako kristauak dakuzkigu: batzuk Kristogandik gertu, besteak urruti, auek arrastaka, aiek bide bazterrean aspertuta. Nork Nori esan dezaioko ordea zu ez zera egitazko kristau?


Asiera eta bukaera berdiñak ditut gaurkoan: Kristautza Norentzat da? Guztientzat? Talde txiki baten-tzat? Zer deritzazu?

AROSTEGITAR JOKIN

## JOSE MARIA SETIEN GOTZAI BERRIA

«San Simon eta San Juda: joan zen uda eta negua eldu da». Gure neguak berekin ditu [ekaitz eta erasoak, neke eta arazoak. Baiñan denok bat egiñik, saiatzen bagera, sinismen-in [darrak eragiñik, guretzat egun beroa udaberri-tuko da. Eta izadi guziari sortuko zaio [barne-argi, gure erriari loretuko Kristoren [pazku berri.

José M.ª Setien, Urriaren 28an, arratsaldeko 6etan eta Artzai Onaren elizan egingo dute Gotzai.



honelako aitorenak egiten ahal zituzten: «Gu apaiz gara, apaiz bazarrik eta betirako»; «Naiz Aita Saindua gurekin ez egon, gu, bai, gu Aita Sainduarekin gaude».

Hura kantatu beharra: Credoa Credoaren gain, Salvea Salvearen gain, Ubi caritas et amor...

Bide horretan hain gogatsu direnek, zer ez zuten eginen, beste bide batetik jo ahal izateko gaitasuna eta buru-malgutasuna gorde izan bazituzten beren bizitzan zehar?

ZIPRIZTINAK

Entzuna dugu, hil honen azken aldera-edo (programarik ez dugu

eskuratzerik izan), Beasainen, Adoración Nocturna delakoaren zilarrezko eztaik ospatzen direla. Baina, hiru egunetako bakarrik izanen ospaketa; behin hasoaz gero, aste bat ez zen gehiegi izanen, us-te dut. Batez ere, ospaketa-modua gogoan hartuaz gero: kanonigu baten hiru hitzaldi, prozesioa herri eta kale guztien barna, meza pontifikala, gosaria elkarrekin... eta ez dakit zer gehiago.

Bakarrik, hauxe esanne nuke: horrelako liturkizun batetan parte hartzeko dagoen Gotzaiak egin dezakeen pastoral berriaren proposapena —Arantzazuko martxa dela edo beste—, nekez hartuko dutela gaurko gazteek.

AMUNSA



# NEKAZARITZA AN ETA EMEN

## EGURRA BERRIAK

Jose Alkiza

Amalau milla milloien egurra ekarri dute kanpotik Españiara azken urte ontan. Urte betean bakarrik ori, eta gero eta gehiago, sartuko da, noski.

Bitartean bertako mendietako zuhaitzak, aziko diran ainbat azita gero ere, an daude mendian zutik, eroslerik gabe.

Zer gertatzen da?

Frabriketako nagusientzat erosoago dala, itsasertzeko kai batean pillatutako egurra, nahi ainbat erosi eta andik karriatzea; mendian emen pixka bat eta an pixka bat, billa ibilli, dozena bat egur-jabeekin tratatzen egin eziñik aritu, eta gero bildu eziñean ibiltzea baino.

Bestalde mendiak aldapa berekin du, kamionarentzat bideak ireki gabe daude askotan, makina aundirik ezin da sar; eta gaur, eskuz egiten dan lana, urri eta garesti ateratzen da.

Egurretarako zuhaitzak bi eratakoak dira: urte gutxitan azkar azten direnak, piñua, eukaliptua eta makala, estate baterako; eta nekez etortzen direnak, aritza eta pagoa bezala. Alere non-zer landatzen dan kontuan euki behar da, dirua arrika tiratzea baita, bi metro azteko 30 urte behar harko dituan tokian, piñua aldatzen jardutea; eta zenbait lekutan orixe egin da.

### ITZALEAN GIRO

Europar basoa eta oihana beste alde batetik ari da inportantzi aundia artzen. Jendea erri aundietan elkarren gainka pillatuta bizi da, zokoan sartuta, otsa eta zalaparta ugari, aidea kez eta usai txarrez kirastua...

Asko, zakurra katetik askatzen danean bezala, astearen azkenean, lanetik libratu orduko mendira doa arnasa artzera, birrikak garbitzera... ihesi.

Olakoentzat piñudi batek, ainbeste metro egur daukalako ez baiña, itzalean jarrita tortilla jateko leku aparta dalako balio du. Eta au ere kontuan eukitzekoa da. Erri aundia oiei, gero eta beharrago bait zaie inguruan zuhaitzeko esia, aize berritzeko eta jendeak atsedean artzeko.

### MAKALAK ERREGARIOETAN

Duela urte mordo bat debekatu egin zan erregariatutako lurretan makalak aldatzea. Izan ere, jendea lanik gabe geldi ez zedin, esku-lan asko emango zuen zerbait erein behar zan erregarioetan.

Gaur alderantzira gertatzen da: zeñiek lan egiña falta. Orregatik eskulan gutxi behar duen eta makinaz egin ditekkeen zerbait jarri behar da. Makala apraposa da ortarako. Behin aldatuz gero, erregariatzeaz gain, ongarritzea eta urtean behin tratorearekin pasadaxo bat ematea, nahikoa baitu.

Ori ikusita nekazaritzako ministerioak, erregariatutako lurretatik % 7 gutxienez, makalak edo azkar aziko diran zuhaitz motak, aldatzea nahi luke eta ortarako diru laguntzak eskeintzen ditu.

Alere nekazariak ez dute makalik aldatzen. Batetik gaur lurrari kentzen dioten etekiña, pixka izan arren urterokoa delako, eta orain bizi zeko behar dutelako. Betetik berriz, emendik 14-18 urtetara nork daki makalak zer diru egingo duen, itxurak diranez, kanpotik egurra nola-nahi ekar ahal baditeke?



Makalak erregario lurretan

### EGURRAK EZ DU DIRURIK UZTEN

Emen dago koska: egurra merke dagoela. Egurraren prezioa, zutik dagoen tokian, gaur orain 20 urte bezalatsukoa da.

Bestalde, zuhaitzak bota, zuritu eta karreatzea, lehen baiño garestiago ateratzen da, eskulana igo egin baita, eta gaur oraindik, ez da ortarako makineriarik Suezian eta bezala.

Gaiñera azken urteotan, zuhaitzez onritu diren lurrei, erantsi zaizkien kontribuzioak eta inpuestoak izugarriak dira. Esate baterako: 1965garren urtean 14.422 pta. pagatu zituen batek, 106.846 pta. pagatu ditu 1971an. Zazpi alako eta gehiago alajaiña, lur pusketa ber-beragaitik.

Egoera oni irtenbide bat arkitzeko, gauza asko egin behar harko litzake. Besteak beste: inpuestoak ken edo eratxi behintzat, eta egurrari zutik dagoen tokian gutxieneko prezio bat ezar.

### KONTUAK ERAMAN ETA GOBERNUARI ERAKUTSI

Nekazaritza aurrera eramango bada, ez du nahikoa gobernuak planak egitea eta legeak jartzea. Egin du besteak beste, "III plan de desarrollo" delakoa, eta eman nekazaritzari dagokionez zenbait lege.

Orain jakin egin behar du, lege oiek ze ondorio dakazkieten nekazariari, zenbat kostatzen zaizkien beren produktuak, eta zenbatean sal ditzaizketen. Ortarako "red contable agraria" eratu du. Nekazari enpresak, baserriko buruak esango genduke, lapitza artu, numeroak egin eta kontuak eramateko sistema.

Eta gobernuak, nahi dutenei, ez baitu inor behartzen, proposatzen die: erakus dizazkietela beren numeroak eta kontuak.

Gobernuak bere aldetik eskeintzen du:

—12.00 pta. urteko, trato au egingo duten enpresei, diru laguntza bezala.

—kontuak eramateko paperak eta zuzen egiteko behar duten laguntza eta erakuspena.

—Nekazaritzako ministerioak argitaratzen dituen idazkiak utsean bidaiiko dizkiela.

—"red contable" delako ortan landide direlako karneta emango diela.

Dagoeneko 500 nekazari enpresak eskatu dute, gobernuarekiko trato ortan sartzea, eta laster 6.000ren bat sartuko direla, espero da.

Onekin gobernuak aterako ditu kontuak, kilo bat gari edo litro bat esne, zenbat kostatzen dan sorzera, eta ori jakiniñik, prezio justua ezarriko die gauzei. Guretzako ondorioak? Ikusiko ditugu bizi bagera.

### EGUZKILOREA

Aurtengo udan, uztaillaren 25-29-ra, Frantziako Clemon-Ferrand-en, eguzkiloreari buruz, nazio arteko bosgarren batzarra ospatu da. Bileran ortada 34 naziotatik norbait azaldu zen eta 80 bat itzaldi izan ziren.


Gure artean etxeoandreek erosten dute dendan "aceite de girasol", umeak, eta zenbait ume zahar ere bai, aspertu gabe "pipak" jaten ari ziren dira, baserriarrek erosten dute iriña pentsutarako, baiña ortik aurrera... inork ez zuen pentsatuko, eguzkiloreak 34 nazioetako jendea bilaratzeko ainbat garrantzi izango zuenik.

Eta badu inportantzi. Eguzkilore orren aziaz olio egiten da, sagarrar sagardoa bezelaxe, eta geratzen dan patsa, irinduta, oso pentsu ona da esnebehintzat, arto edo garagar iriñarekin nahastuta emateko, babak bezala proteina baitu ugari.

Bestalde ez dago nahiko oliondo eta azeituna, gaur behar dan ainbat olio egiteko, eta baba ere gero eta gutxiago eraiten ote dan, nago.

Batzarre orretan gauza bat nabarmendu da: Rusoak eta Amerikanoak erakustera baiño gehiago ikastera joan direla. Eta au arritzekoa da, gaur eraiten diran eguzkilore oliotarako klaseak, Rusian sortuak baitira. Ipar-Amerika da berriz, eguzkilorearen sorlekua, baiña oraintxe bi urte arte, ez diote arreta aundirik eman.

Teknikaz aurreratuenak Frantzia eta Rumania azaldu dira, batipat, azi hibridoak, eta gaitzari gogor egin-



Eguzki-lore sailla

go dioten azi klaseak topatu dituztelako.

An bildu dan jendeak gehienbat jakin nahi zuena, zein azi klasek ematen duen ugari, bai alea eta zumoa edo olio, izan da; baiña milidui gaitzak jotzen ez duena izan de-dilla. Izan ere gaitz onek buruhauste latzak eman baititu zenbait lurraldetan.

Urrango batzarra Rumanian egingo da. Azi klase berriak sortzeko sistimari arretatuena an daude. Eta bitartean, zuk irakurle, segi pipa jaten eta eman umei ere, nondik-nora dabilzan arrastoak utziko dituzteta.

### MUNDU GUZIAN JATEN DA BEHI ARAGI GEHIAGO

Gure artean orain dala 20 edo 30 urte baiño gaur aragi gehiago jaten dala, ez dago esan beharrik. Orduko kontuak jakiteko gazteegia bazera, galde lozu amari edo amonari... betaz zaudenean, zenbaiten erretolika, pasa zituzten goseak kontatzen asten diranean, ez baita berealakoan gukazten...

Baiña ez noa ortik. Bost-sei urtetik onuntzako kontuak dira. Japonen arraia askoz gehiago istimatzen zuten eta ez ziran ain aragi jale. Orain ordea, arragi-zaletu dira. Beste zenbait tokitan zaleak bai baiño ezin iritxi. Datozen urteotan zekor aragi eskea, asko ugalduko omen da...

Rusia, European eta Ameriketako zezenak erosten ari da, bertako ganadua obetzeko. Ipar-Ameriketako pentsua ematen zaio ganaduari, lehen ez bezala, azkarrago azi eta aundiago egin dedin. Orrela aragi gehiago eta obea produzitzen dute.

Baita gure artean ere. 60 erraldekoko zekorrek noiztik onera azitzen dira? Baiña emen dago koska, guretzat ez-ezik amerikanoentzat ere: nola azi zekorrek asko eta eder, merke saltzeko moduan? etxeoandreek aragiaren prezioaz kejarik ez izateko moduan?

### TIPULA ZURITZEKO MAKINA

Zenbat negar ez ote da egin munduan, eta zenbat malko ez ote dute

ixuri etxeoandreek tipula zuritzen eta txikitzen!!!

Munduko bazterrik gehienetan jaten dan jeneroa da tipula eta antziatik gainera. Baiña orain arte ez zuen asmatu inork, tipulari azala kentzeko eta xehetzeko modurik eskuz ez bada. Eta eskuz malkoa dariola ari beharrekoa da. Mr. Leslie Parsons, Gales-ko inbentore batek, 12 urtez eginahalean eta buruhausten jardun ondoren, asmatu du azkenik, lan-ori azkar eta ondo egingo duen makina.

Orain Ingalaterrako fabrika batean, Manchester-en, makina ori egin eta egin ari dira mundu guzira saltzeko.

Makina orrekin, egunean 6.250 kilo tipula presta ditezke, zortzi orduko lanean 30 neska enpleatzen direlarik.

Tipula nahi baduzu, zuritu, muturak moztu, plastikokoan bildu eta bere artan salduko dizute nahiko baduzu berriz, txikituta potetan, edo ozpiñetan parrita.

### HOLANDA

Holandako iparraldeko probintzian 74.500 esne-behien kontrola eraman dute eta "computadora" k dato auek atera dizkie:

—Baztan beste behi auek lau urte terdi irau dute esne ematen.

—Bakoitzak urteko 5.158 kilo esne eman ditu.

—Esne orrek % 4,06 zeukan grasaa eta % 3,34 proteina.

Holandarrak, bataz beste, urtearen buruan 80 kilo patata jaten dituz bakoitzak, baiña kanpora ere eruz saltzen dute.

Nekazariak soro erabiltzen duten % 23, ia laurdena, patata eraiten da. Mundu guztian sakabanaturik dauden 70-80 naziotara saltzen dute patata eta azitarakoak, gero eta eskabide aundiagoa, dauka. Patatagatik ez balitz baserri askok ez lukete bizibiderik.

Alere 1980 urtea baiño lehen 20.000 baserri ustuko omen dira. Baiña nekazaritzak gero eta gehiago produzitzen segiko du.

Nekazari bakoitzak 9,5 Ha. lur lantzen zituen 1970ean, 13,3 landuko ditu 1980an; edota 21 behi zeuzkan eta 30 izango ditu.